

3. ANTZINAROA



Antzinaro izendatu dugun kapitulu honetan, Euskal Herrian erromatarren eragina izaten hasi eta VIII. mendera arteko denboraldia hartu dugu. Antzinaroa, historialari batzuen ustez, K.o. III. mendean Erromako Inperioaren beheraldiarekin amaitu zen, baina beste batzuen iritziz aro horri amaiera (edo Goi Erdi Aroari hasiera) VIII. mendearen hasieran eman zitzaion.

Egia esan, denboraldi horri gagozkiolarik, Zestoako albisteak urri dira Historiaurreak eskaini dugun datu piloaren ondoan, baina orain arte eskueran ditugun berri emanda, inguruko aztarnategietakoak ere azalduko ditugu. Halaber, gure lurraldeko eta inguruetako gorabehera nagusien laburpena ere emango dugu.

Kondairak dioenez, Erroma K.a. 753. urtean sortu zuten Romulo eta Remok, eta harrezkero, K.a. 510. urtera arte, monarkiak gobernatu eta zabaldu zituen

haren mendeko lurraldeak. K.a. 510. urtean Erroman errepublika ezarri zen, Tarkino erregea, azkena, agintaritzatik kenduta.

Errepublikak K.a. 509. urtetik K.a. 27. urtera arte iraun zuen. Erroma eta haren mendeko lurraldeak gobernatzeko sistema errepublikarra zen. Herritarrek, bizitzari edo zuzenbide-estatutuari zegokion erabakiren bat magistraturen batek hartzen bazuen, gora jo zezaketen. K.a. 510. urtera arte monarkiak gobernatu eta zabaldu zituen haren mendeko lurraldeak.

K.a. 27. urtean inperioa ezarri zuen Oktavio Augustok, eta harrezkero, K.o. 476. urtera arte, enperadoreek agindu zuten Erroman. K.o. 285. urtean Diokleziano enperadoreak inperioaren administrazioa bitan banandu zuen: mendebaldeko inperiorako zen bata eta ekialdeko inperiorako bestea. K.o. 330. urtean Konstantino I.ak Konstantinopla (Bizantzio edo oraingo Istanbul) izendatu zuen inperioko hiriburua.

3.1. K.a. II. MENDERA ARTE

Euskal Herrira erromatarren eragina iritsi zenean zegoen giroa, aurreko kapitulu Burdin Aroan deskribatu dugunaren antzekoa zen. Erromatarrek Galia deitutako lurraldean zelten eragina handia zen, baina Pirinio aldeko Akitaniako ibarretan biztanleek zeltena ez eta beste hizkuntza bat erabiltzen zuten. K.a. 218. urtean Hanibal kartagoarra bere tropekin Gerra Punikoetan Akitania ondotik igaro zen Italiako iparralderantz, baina K.a. 208. urtean Hasdrubal Pirinioetako mendebaldetik igaro zen, anaia Hanibali laguntzarren¹.

Erromatarrak ere Pirinioetara eta Ebro ibaiaren arrora etorri ziren Kartagoko armadarentzako horniketarak eten asmoz. Eszipion Ampuriesen lehorreratu zen K.a. 218. urtean erromatarren tropekin, eta geroxeago Indibil eta Mandonio iberiarrek aurre egin zieten erromatarrei². Orduan hainbat tribu bizi zen Euskal Herrian. Pirinioetatik iparraldera, Akitanian, mendebaldean tarbelliak eta sybillateak, erdi aldera iluroak, veraniak, bigerriak, convenaeak eta consona-

riak, eta iparralderago vasateak, elusateak, lactorateak auschiak eta tarusateak. Pirinioetatik hegoaldera kantauriarrak, autrigoiak, karistiarrak, barduliarrak, baskoiak, iacetaniak, suessetaniak, ilergeteak, sedetaniak, etab. zeuden. Hegoalderago, berriz, zeltiberiarrak, beroiak, turmogoak, etab.³

3.1.1. Euskara eta inguruko hizkuntzak

Iberia lurraldeetan erromatarrak heldu baino lehen bi hizkuntza indoeuropar erabiltzen ziren: lusitaniera mendebaldean, eta erdi aldean zeltiberiera (hau da, Iberian egiten zen zelta dialektoa, eta ez iberieraren eta zeltaren nahastea). Beste hiru hizkuntza ez ziren indoeuroparrak: Tartesosko hizkuntza (hego-mendebaldean), akitaniera edo protoeuskara (iparraldean eta Akitanian) eta iberiera (Iberia ekialdean eta Galia ekialdean). Azken biak erromatarrek Galia deitutako lurraldera ere zabaldu zuten. Zelten hizkuntzan hiria adierazteko “-briga” atzizkia erabiltzen

zuten. Euskaldunek eta iberiarrek, berriz, “ilu-” edo “ili-”. Beraz, toponimiari erreparatuta, honela banantzen dira Iberia eta Galia (ikus 3.1. irudia). Iberiera transkribatu eta irakurri ahal izan da, baina ez itzuli. Azpimarratzekoak dira Iruñearen “Pompa-ilu” edo “Pompa-ilum” forma erromatartu gabeak. “Ilu” edo “Iru” elementuak lurralde batean lehendik zegoen hizkuntzaren arrastoak izan daitezke.

Dirudienez Bizkaian historiaurreko “-ika” amaierako leku-izenak erromatarren garaian “-iz” atzizkia ordeztu ziren, eta Oria ibaiaren ibarrean “-ama” atziz-

kiaren lekua “-ain” atzikiak hartu zuen⁴.

Zestoan ugari dira “-ain” atzizkia duten leku-izenak. Hona hemen batzuk⁶: Urtarain (1483), Muskandain (1483) (Buskandegi), Urriarain (1483), Ibañarrieta (1393), Beaingo San Lorente (1399), Adiestain (1483) (orain Ariztain), Anatxarain (1483), Sastarrain (1543), Illurdain, Benasainburua, Atristain, Sustrain, Zebainerreka... (Zestoan bada Gallaritxo edo Gallegitxo izeneko baserria, eta ondoan, Azpeitiko partean, Gallari edo Gallegi, lehen “Gallain” deitutakoa).



3.1. irudia. “-briga” amaiera eta “ilu-” hasiera duten leku-izenak.

Badirudi erromatarrak iritsi baino lehen euskaraz hitz egiten zuen jendeak maila batean edo bestean indo-europar dialektoren bat ezagutzen zuela, baina Gipuzkoan eta Bizkaian horren lekukotasun gutxi dago.

Besteak beste, honako hitz hauek zelta hizkuntza-koak direla esaten da: Nerbioi, Ultzama, Zegama eta Lezama. Gainera, latinaren bidez euskarak hartu dituen hitz zelta batzuk badira: “gona” eta “landa”, adibidez. Aipa dezagun Zestoan bertan Errezil eta Aiarekin muga egiten duen Bedama leku-izena.

Garai hartako iberieraz idazteko, K.a. IV. mendetik K.o. II. mendera arte paleohispaniar idazkera erabili zen. (Julio Caro Barojaren iritziz, K.o. II. mendean utzi zitzaion iberieraz hitz egiteari). Baita zeltiberieraz idazteko ere, K.a. II. mendean. Antzinaroko euskaraz idatzita ageri den zenbait txanponetan ere erabili zen idazkera mota hori K.o. lehen bi mendeetan (Zestoako Amaldan aurkitutako bi txanponetan, Baskunes-en egindakoetan, adibidez).

3.2. irudia. Zestoa. Bedamako Linatzeta baserria.



3.3. irudia. Baskunes-ko denarioa (imitazioa). Paleohispaniar idazkera du. Atzean zaldi-zaldunen azpian Baskunes dio.

Orain euskaraz hitz egiten den lurraldean honako tribu hauek bizi ziren erromatarren garaian: Bizkaian karistiarrak eta autrigoiak; Gipuzkoan barduliarrak eta ipar-ekialdean baskoiak; Araban autrigoiak, karistiarrak, barduliarrak eta beroiak; Nafarroan baskoiak, eta mugaz beste aldera akitaniarrek². Akitaniera ikeritzeko idazkera paleohispaniarreko eta latindarrezko testuak daude⁴.

harresituak azaldu dira; beraz, hegoaldeko zeltiberiarrekin lotura zutela esan daiteke. Mendebaldean Deba ibaiak bereizten zituen barduliarrak eta karistiarrak. Deba ibaitik Ibaizabal-Nerbioiraino karistiarren lurak zeuden, eta azken bi herri hauen lurak hegoalderantz Ebro ibaiaren aroraino zabaltzen ziren. Gainera, abeltzaintza eta transhumantzia bizi-bizirik zeuden garai hartan⁵. Bertako biztanleek mendia zuten



3.4. irudia. Euskal tribuen arteko mugak. Gero baskoiak hedatu egin ziren, besteak beste iacetani eta suessetani herrien lurraldeetara.

3.1.2. Gipuzkoaren egoera

Garai hartan Gipuzkoak zenbait kultur eremu zituen inguruan. Akitania, Ebro ibaiaren arroa, Pirinio aldea eta Kantabria aldea zituen. Bidasoa ibaiak beste aldera Akitania zuen. Hortik Leitzarain artean, Pirinioetaraino helduz harrespilak daude, hau da, baskoien lurraldea zen. Muga horien inguruetan herri

bizileku, eta hortik hartzen zuten mendean lurraldea ibaietaraino. Ekonomiaren oinarria abere taldeak ziren, eta historiaurreaz gero bide berak erabiltzen zituen transhumantzian⁵.

Gipuzkoako biztanleek bi gune nagusi zituzten transhumantziarako. Bata Aralar zen, eta bestea Aizkorri.

- Aralartik bide bat Araizko ibarretik (Arribetik) hasi eta Gorriti-Uitzi-Belabieta aldetik Berastegira zihoan. Hor Aralartik, Amezketa aldetik, zetorren beste bide bat elkartzen zitzaion, eta Berastegitik aurrera Amasa eta Urnietatik igarota Astigarragara iristen zen. Puntu horretatik zenbait adarrek irteten zuten, Donostiako Altza aldera, Oiartzun aldera eta Erreterria aldera, hortik Hondarribiraino joateko.

Aralartik transhumantziako beste bide batek Goierriko hegoaldetik Murumendira igotzen zuen. Hortik Santa Marinara, Bidanira eta Iturriotzera zihoan. Iturriotzetik Andazarratera joanda, puntu horretan bi adar ateratzen ziren: bata Asteasu, Aduna, Zubieta, Lasarte eta Donostia aldera, eta bestea Aia, Zestoa, Aizarnazabal, Getaria eta Zarautz aldera.

- Aizkorritik bide bat Idiazabal, Segura eta Zegamatik Brinkolan zehar Antzuolaraino iristen zen. Hortik adar bat Debaraino zihoan, dirudienez Elosua, Azkarate eta Itziartik. Beste adarra, Bergarako San Prudentziotik Bizkaiko Zaldibarra zihoan, eta hortik Mutrikuraino. Zaldibartik beste bide bat Bizkaian Mungia eta Leioaraino iristen zen. Azpimarratu beharra dago, bai Aralartik eta bai Aizkorritik abiatzen ziren transhumantzia-bide horietan megalitoak ugari direla.

Euskal Herrian eta Gipuzkoan bizi izan ziren herrien aipamen zaharrenak K.a. VI. mendeko bidaia batean oinarritutako “Ora Marítima” idazlanean daude, Rufo Festo Avenio-renean, non baskoiak aipatzen baitira. Halaber Silio Italico-ren “Punica” lanean, Hanibalen alde gerran borrokatu zirelako⁵.

3.5. irudia. Zestoa. Aizarnako San Pelaio ermita. Gutxienez Erdi Aroaz gero transhumantziako bide izan denaren ondoan dago, Amaldako haitzuloa ere gertu dela.



3.6. irudia. Aralarko larreak.



3.2. K.a. II. MENDEA

3.2.1. Erromatarren konkistak

Akitaniako iparraldean K.a. II. mendean galiarrek beren berezitasunak eta elkarren arteko loturak zituzten. Erljioa ere berezia zuten, druiden gidaritzapean¹. Akitanian bertan, berriz, K.a. 118-106. urte bitartean erromatarrak Couserans eta Comminges-tik igaro ziren. Orduan consonari, convenae eta lactorate izeneko tribuak hartu zituzten mendean.

Hala ere, Gerra Punikoen ondoren erromatarrek lehenbizi Iberia konkistatzeari ekin zioten. K.a. 195-194 bitartean Marco Porcio Caton-ek bere tropekin Aragoiko Jaca aldean bizi ziren iacetaniak menderatu zituen, baina lehenago Lleida aldeko ilergeteak eta Oskako suesetaniak ere Erromaren mendera etorri ziren².

Urte batzuk geroago, K.a. 190-178. urte bitartean, Ebro ibaiaren arroaren erdi aldeko zeltiberiarrek azpiratu zituzten. K.a. 178. urtean, berriz, Gracchus hiria (Alfaro) sortu zuen, Ilurcis herriaren aurriaren gainean eraiki ere, Tiberio Sempronio Graco jenerala: baskoien lurraldeko lehen hiri erromatarra, hain zuzen. Geroago, K.a. 133. urtean zeltiberiarren Numantzia (Soria) setio luzearen ondoren menderatu zuen Eszipion Emiliano erromatarrak. Horrela Ebro ibaiaren arroa militarki segurtaturik geratu zen, zeltiberiarrekin K.a. 153. urteaz gero izandako borroken ondoren³.

3.2.2. Erromatarren eragina Gipuzkoan

- Plutarkok, berriz, “barduoi” taldea aipatzen du, hots, ustez geroko “barduliarrak”, “Marioren bizitza” izeneko lanean. Mariok guardia pertsonalean omen zituen barduliarrak, eta 114. urtean eraman omen zituen Hispaniatik. Argitu beharra dago Mario Hispania Ulterior-ko (Betika eta Lusitania hartzen zituen) pretore izan zela.

Barduliarren lurretan, Ataungo San Martingo Usategi haitzuloan, aurkitu ziren 1970. urtean K.a. II. mendearen amaieran edo K.a. I. mendearen hasieran egindako zortzi txanpon. Zilarrezko zortzi denario dira, eta idazkera paleohispaniarreko zeinuak dituzte. Lau txanpon BASKUNES (Iruñea?) txanpon-etxeak dira, beste bi TURIASUkoak (Tarazona) eta beste bi SECOBRICESkoak⁷.

- Kontuan hartu Zestoako Amaldan topatutako bi txanponak ere BASKUNESen egindakoak direla, eta Iruñea aldetik Amaldaraino, erdian Aralar dela, transhumantziako bideetatik etor zitezkeela. Ideia hau hipotesi gisa kontuan hartzekoa dela iruditzen zaigu. Amaldako denarioak K.a. 105-82. urte bitartean egindakoak dira⁸, biak berdinak. Aurreko aldean gizon bizardunaren buru uae skuina Iderabe girada go.O rrazkera zeltiberiarra da. Buruaren atzean BENKOTA du idatzita zeinu paleohispaniarrekin. Ertzean buelta osoan puntuak ditu denario batek, eta besteak ez. Atzean biek zaldia eta gainean zalduna dute eskuineira begira, eskuan ezpata motza duela. Irudiaren azpian BASKUNES dago idatzita zeinu paleohispaniarrekin. Denario batek ertzean zirkunferentzia markaturik du, eta besteak ez. Lehen denarioak 17,5 mm-ko diametroa eta 2 gramoko pisua du. Bigarrenak, berriz, 18 mm-ko diametroa eta 3 gramoko pisua⁴.

Amaldan, bi txanponez aparte, indusketako II. mailako materialak ere garai bertsukoak dira⁸. Maila horretan harri-industria, zeramika, metalezko piezak, apaingailuak eta fauna-hezurak aurkitu zituzten.

Harrizko pieza batzuk hauek dira: 5 harri-xafla eta printza ukitu, 2 harri-xafla bizkardun, karraskagailu bat, 2 harri muxarratu...

Zeramikari dagokionez, 8 ertz-zati (bat hatzez apaindua), karenadun ontzitxoaren bi zati, ontzitxo baten zati bat, atzazalez apaindu eta kordoiz dekoratutako zati bat, etab.

Metalezko piezak ere topatu ziren: kobre/brontzezko 6 errematxe, eta forma jakinik gabeko burdinazko eta kobre/brontzezko zatiak. Apaingailuak ere bazeuden: kobre/brontzezko disko erako pikor bat eta koralezko beste pikor zilindriko bat.

Faunaren hezurak ere aurkitu ziren. Hain zuzen espezie hauek dira aurkitutakoak: *Bos taurus* (zezena), *Capra hircus/Ovis aries* (etxe-ahuntza/ardia), *Sus domesticus* (txerria), *Capra pyrenaica* (ahuntza), *Sus scrofa* (basurdea), *Vulpes vulpes* (azeria), *Passer* (txolarrea), *Salmo sp.* (izokina), etab.⁹

3.3. K.a. I. MENDEA

3.3.1. Akitania erromatarren mende

K.a. I. mendean erromatarrek beren mendeko lurraldeak zabaldu egin zituzten. K.a. 56. urteaz gero P. Krasok, Zesarren ordezkariak, bi espedizio aski izan zituen Akitaniako herriak bere mende hartzeko. Lehen espedizioan Garonatik iparraldera zeuden herriekin bakeak egin zituen. Bigarrenean Garona ibaitik hegoaldeko Akitaniako herriak garaitu zituen. K.a. 51. urtearen amaiera aldera Julio Zesar Akitaniara heldu zen, eta bertako hiri guztietatik joan zitzaizkion ordezkariak. Orduan Zesar Garona ibaian gora joanda Narbonaraino iritsi zen. Hura izango zen Erromak Galian izango zuen merkataritzarako bide nagusia¹.

K.a. 72. urtean Ponpeio jeneralak Lugdunum Convenarum (Saint-Bertrand-de-Comminges) hiria sortu zuen³.

Geroxeago, ordea, erromatarrek zailtasunak izan zituzten Akitanian, batez ere Garona ibaitik hegoalderako herriekin. K.a. 44-43. urteak zailak izan ziren. K.a. 43-40. urte bitartean Marko Antonio izan zen Galiako (beraz Akitaniako) nagusi, eta handik aurrera Oktavio Augusto. K.a. 39 eta 38. urteetan Agripak borrokatu egin behar izan zuen Akitanian, eta Mesalak ere bai K.a. 27. urtean.

Horregatik, Augustoren garaian Pirinioetatik Loira ibairainoko lurraldearekin Akitaniako barruti berria eratu zen. Seguru asko Oktavio Augustok K.a. 16-13. urte bitartean Akitaniara egindako bidaietan hartu zuen erabaki hura¹. Konkistaren ondorioz erromatarrek administrazio aldetik banandu egin zituzten Pirinioe-

tako iparraldeko eta hegoaldeko lurraldeak, baina, idazle klasikoek diotenez, akitaniarrek beren hegoaldeko auzokoekin harreman estuak zituzten. Ez da ahaztu behar Pirinioek alde batekoak eta besteak bereizi baino gehiago elkartu egiten zituztela. Euskalkietan garbi ikusten da, adibidez, erronkariara gertuago dagoela Pirinioaz beste aldeko zubereratik alboko zaraitzueratik baino².

Julio Zesarrek bere “Galiako Gerraz” idazlanean zioenez, galiarrak eta akitaniarrak Garona ibaiak banantzen zituen. Besteek ez bezalako hizkuntza, ohitura eta legeak zituztelako bereizten ziren. Estrabonek ere bere “Geografia” lanean dioenez, akitaniarrak beste arraza batekoak ziren itxura fisikoaz eta hizkuntzaz. Ez da ahaztu behar, bestalde, Nafarroa Behereko Ibañeta eta Bentarte inguruan Urkuluko monumentua dagoela, dirudienek erromatarrek Akitanian izandako garaipenak ospatzeko egina³.

Dena den, Akitania zaharrean, Garona ibaitik Pirinioetaraino hasieran bederatzi herri edo gizatalde zeuden, eta horregatik deitzen zioten Novempopulania. Gero, ordea, hamabi izatera heldu ziren. Honako hauek ziren talde haien hamabi hiriak: Civitas Elusatum (Eauze), Civitas Lactoriatum (Lectoure), Civitas Convenarum (Comminges), Civitas Aquensium (Akize, Dax), Civitas Consonarum (Couserans), Civitas Boiatium (Bouchet Born), Civitas Benarnensium (Biarnoko Leskar), Civitas Aturensium (Airesur-l’Adour), Civitas Vasatica (Bazas), Turba, ubi Castrum Biborra (Tarbe eta Saint Lizier de Bigorre), Civitas Iloronensium (Olorue) eta Civitas Ausciorum (Auch edo Auski)¹⁰.

Akitaniatik bide nagusiak zeuden Lionera eta Narbonara Galian, baina hegoaldera Asturica edo Astorgaraino ere bazuten beste bat, besteak beste Orreagatik eta Iruñetik igarotzen zena.

Erromatarrek beren zibilizazioa hedatu zuten Akitaniara, batez ere hirietara. Orduan hasi ziren izen latindarrak gero eta gehiago erabiltzen, baina Bigorren eta Euskal Herrian eragina apalagoa izan zen¹.

3.3.2. Erroma eta baskoiak

K.a. 89. urtekoa den Ascoli-ko brontzea aipatu beharra dago. Brontzezko plaka horretan zenbait zaldun iberiar eta baskoiri Erromako hiritartasuna aitortzen zaie, Ponpeioren aitari Italiaren erdialdean dagoen Ascoli hiria hartzen lagundu ziotelako. Zaldun haietako batzuk Segiakoak (Ejea de los Caballeros) eta ingurukoak ziren. Haien izenak ikusita, zalantzarik gabe esan daiteke euskaldunak direla.


K.a. 87-72. urte bitartean Sertorio eta Ponpeioren arteko gerrak izan ziren. Ordura arte ez zuten inoiz esan baskoien tribuak erromatarrei aurka egiten zienik. Erromako gerra zibila zela eta, baskoien berri eman zuten. Aristokraten alde Ponpeio jenerala bere tropekin azaldu zen alde batetik, Sila lagun zuela, eta Marioren armada, herritarren aldekoa, bestetik. Ser-

torio, gainera, Marioren armadako jenerala zen, Hispania Ziterior-ko gobernadore.

Erromako gerra zibil hura neurri batean baskoien inguruan aurreko mendean bereganatutako lurretan gauzatu zenez gero, maiz agertzen dira baskoien aipamenak. Baskoiek Ponpeioren alde egin zuten; izan ere, Salustiok dioenez, erromatarrek baskoien gariak hornitzen ziren. Estrabonek dioenez, berriz, Ponpeiok Pompaelo (Iruñea) hiria sortu zuen K.a. 75. urtean.

Ponpeioren alde Kaskante, Iruñea, Alfaro (Graccurris) eta Egea de los Caballeros (Segia) hiriek egin zuten. Sertorioren alde egin zuten, ordea, Kalagorrik, Ilerdak (Lleida) eta Oskak (Huesca). K.a. 72. urtean Ponpeiok Kalagorri suntsitu egin zuen, Metelok setiatuta denbora luzez edukita. Setiatuek beren hildakoen gorpuak gazitu egin zituzten, haiek jan eta bizirik iraun ahal izateko². Nolanahi ere, gerra odoltsu haietan jendea hil, esklabo bihurtu edo lekuz aldatzen zuten³.

Badirudi Ataungo Usategi haitzuloan 3.2.2. puntuan aipatutako txanponak Sertorioren gerra-garaian gorde zituztela. Bestalde, K.a. 12-6. urte bitartekoa den txanpon bat, Augustorena, topatu zen Irungo Belaketa kalean. Hiri bereko Junkaleko parroikia ondoan ere aurkitu ziren buztinezko ontzi batzuk⁵.



3.7. irudia. Iruñeko harresiak.

3.3.3. Kantauriarren eta asturiarren aurkako gerrak

Erromatarrek K.a. 38. urtean Hispania osoa mendean hartu eta baketuta zutela uste izan zuten. Horregatik datatzeko “aro hispanikoa” izeneko egutegiaz baliatzen hasi ziren. Beraz, lehen urtea K.a. 38. urtea izan zen aro hispanikoan. Datatzeko sistema horrek indarrean iraun zuen oso gerora arte. Gaztelako erreinuan, adibidez, Joan I.a erregearen aginduz 1383. urtean utzi zioten “aro hispanikoaz” agiriak datatzeari. Aragoiko erreinuan, berriz, Pedro IV. erregeak lehentxego, 1350. urtean, kendu zuen “aro hispanikoaz” datatzeko sistema. Orduan Kristoren jaiotza-urtea hartu zuten erreferentzia gisa, eta harrezkero sistema hori erabiltzen dugu.

Hala ere, erromatarrak oker zebiltzan, zeren eta Hispaniako kantauriarrak altxatu egin baitziren. K.a. 29. urtean hasi eta K.a. 19. urtean amaitu ziren borroka, Oktavio Augustoren agintaldian. Kantauriarren aurkako gerrak iraun zuen bitartean, erromatarrek itsasotik edo lehorretik egiten zituzten erasoetan, horniketa-lanak egin zituzten euskaldunek. Gerra amaitu zenean, Oktavio Augustok iacetani, baskoi eta beroien lurraldeak Zaragozako komentu juridikoan sartu zituen. Barduliar, karistiar eta autrigoienak, aldiz, Cluniakoan (Coruña del Conde, Burgos)².

Kantauriarrak asturiarren ondoan zeuden, mendebaldean Sella ibaia muga zela, eta ekialdean autrigoiak, karistiarrek eta barduliarrak zituzten.

Baliteke asturiarren eta kantauriarren altxamendua Akitanian izandakoekin lotuta egotea. Akitaniarrak Mesalak garaitu zituen K.a. 28. urtean, eta kantauriarrak harreman onak zituzten akitaniarrekin. Augustoren ordezkari Statilio Tauro etorri zen eta, irabazi arren, gerrak jarraitu egin zuen.

K.a. 28. urtean Calvisio Sabinok jardun zuen erromatarren tropen buru, eta hark ere irabazi egin zuen, baina gerrari ez zion amaierarik eman. Gerorago, K.a. 27. urte amaieran, Oktavio Augusto bera Hispania

niara etorri zen. K.a. 26. eta 25. urtean gerrako zuzendaritza Augustok bere gain hartu zuen, baina kantauriarren eta asturiarren gerrilla-sistemaz gogaituta erretiratu egin zen, aginpidea Antistio Vetus-i utzita. Antistioz gain beste bi jeneralek ere parte hartu zuten eraso haietan. Gainera, itsasotik ere erromatarren tropak lehorreratu ziren. K.a. 25. urtean asturiarren aurka borrokatu ziren erromatarrak Carisius-en gidaritzapean.

K.a. 24. urtean Augustoren ordezkari L. Aemilius-ek gidatu zuen kantauriarren aurkako gerra, eta K.a. 22. urtean ere izan ziren gatazkak. Furnius-ek eta Carisius-ek hartu zuten parte. Orduan kantauriari askok beren buruaz beste egin omen zuten, erromatarren mendera etorri nahi ez zutelako.

Bi urte geroago, K.a. 19. urtean, Galian esklabo moduan zebiltzan kantauriarrak beren jabeak hil eta sorterriko mendietara itzuli ziren. Erromatarren kanpamentuei eraso egin zieten. Oraingoan Oktavio Augustok Marko Vipsanio Agripa jenerala, zeukan onena, izendatu zuen gerra gidatzeko, eta behin betiko garaitu zituen kantauriarrak. Gerrarako gai ziren etsai guztiak hilarazi egin zituen, jendea mendietatik jaitzarazi eta lautadetara ekarri zituen bizitzera, eta arma guztiak kendu egin zituzkien. Hura izan zen gerraren benetako amaiera.

Gerra haietan erromatarrek legioetan mertzenario gisa erabiltzen zituzten herritar asko. Hogeita bost urteko soldaduska egin ostean Erromako hiritartasuna hartzen zuten legionarioek eta familiako senideek².

3.3.4. Euskaldunen bizimodua

- Erromatarrek garai hartan euskaldunen lurraldea, Akitania aparte utzita, bitan banatzen zuten: “ager vasconum” eta “saltus vasconum” deitutakoetan. “Ager” hitzak lur landua esan nahi du, eta “saltus” hitzak oihan aldea. “Ager vasconum” delakoak oraingo Arabako eta Nafarroako hegoaldea hartzen zuen. Haiak ziren nekazaritzarako lur egokienak. “Saltus vasconum”ek, berriz, itsasaldea eta mendialdea har-

tzen zituen, hau da, oraingo Nafarroako goialdea eta bertatik Gipuzkoan barrena itsasorainoko lurrak. Artzaintzak mende askoan iraun zuen Pirinio aldean, baina nekazaritza gutxi garatuta zegoen. Saltus aldean Immus Pyrenaeus (Donazaharre) eta Oiaso (Irun) hiriak zeuden. Gainera, baskoien lurrak ziren orain Aragoikoak diren zenbait lurralde. Aragoi ibaiaren goiko harana, eta Ejea de los Caballeros (Segia), Sos del Rey Católico (Zauze) eta Alagon (Alaun) hirieta-rainokoak².

egiten zituzten, buruz buruko lehiarako, zelaiko gerretarako eta gerrillarako prestatzarren.

Urteko bi herenetan menditarrak ezkurra besterik ez zuten jaten, zeina xehatu eta ogia egiten baitzuten. Izan ere, ogia denbora luzez gorde zezaketen. Gara-gardoa edaten zuten, eta urri zen ardoa, eskuratu ahala, familiako otordu handietan berehala edaten zuten. Olioaren orde zantzaz baliatzen ziren. Hormen inguruan kokaturiko aulkietan eserita jaten



3.8. irudia. Zestoa. Lasako Agerre (edo Agirre) baserria.

- Euskal Herriko tribuez Estrabonek (K.a. I. mendean bizi izan zen) dioena kontuan hartzekoa da. Haren arabera, Bizkaiko itsasoaren kostaldean zeuden herriek ohitura berdinak zituzten, hasi galaikoe-tatik eta baskoien lurralderaino, tartean asturiar eta kantauriarrak zirela. Kantauriarren ekialdera autri-goiak, karistiarrak, barduliarrak eta baskoiak zeuden, hurrenez hurren¹². Estrabonen arabera, menditar haiek guztiek ura baino ez zuten edaten, lurrean lo egiten zuten eta emakumeen antzera ile luzea zerabilten. Gerrarako zinta batez buruari lotzen zioten ilea. Batez ere ahuntzaren okela jaten zuten. Gerrako Ares jainkoari sakrifikatu egiten zizkioten akerrak, preso hartutako etsaiak eta zaldiak. Biktima bakoitzeko hekatonbeak egiten zituzten, hau da, ehun sakrifika-tzen zituzten. Arma astunezko eta zaldizko borrokak

zuten, eta bertan adinaren zein aginpidearen arabera lerrokatzen ziren. Elikagaiak eskuz esku pasatzen zituzten. Edaten ari zirela dantza egiten zuten gizon-ek, txirula eta turuten soinuaz. Gorantz jauzi eginda belauniko geratzen ziren. Mendiko herriek ez zuten txanponik erabiltzen. Gaiak trukatu egiten zituzten, edo, bestela, zilarrezko orritxoak emanda ordaintzen zuten. Hiltzaileak amildegira botatzen zituzten, eta gurasoak hiltzen zituztenak harrrika hiltzen ziren herriko mugetatik kanpo eramanda.

Greziarrak bezala ezkontzen ziren. Gaixoak bide-gurutzetan ipintzen zituzten, gaixotasun bera izanda-koek erremedioaren berri eman ziezaioten. Brutoren espedizioa baino lehen (K.a. 138. urtea baino lehen) larruzko txalupak besterik ez zuten estuario eta padu-

retan ibiltzeko. Estrabonen garaian, ordea, noizbehinka enborra hustuta egindako txalupak erabiltzen zituzten. Horrela bizi ziren Iberiako iparraldeko herriak: galaikoak, asturiarrak, kantauriarrak eta Piriñoetako baskoiak. Herri gehiago ere baziren, Estrabonek dioenez (bardyetai, allotrigeak eta abar), baina izenak zailak ziren harentzat⁷. Hor autrigoiak, karistiarrak eta barduliarrak sartu behar dira.

3.3.5. Oiasoren sorrera eta Oiaso ingurua

Gipuzkoan bertan, Oiaso portua eta hiria eraiki zuten erromatarrek baskoien lurraldean. Aurkitutako material zaharrenak gutxienez K.a. lehen hamarkadakoak dira. Terra Sigillata Italica motako 50 zeramika zati dira. Junkaleko elizako aztarnategian aurkitu zituzten. Horrez gain Oktavio Augusto eta Tiberioren garaiko txanponak aurkitu dira Irunen, Arditurrin (Oiartzun), Higer lurmuturreko ainguralekuan eta abarren¹³. Hor aurkitu zuten Irun eta Oiartzun artean Andrearriagako hilarria. VALBELTESO / NIS du idatzita, eta goialdean bi pertsona irudikatuta ageri dira. Inskripzioak “Valerio, Beltesonen semea” esan nahi du. Oktavio Augustoren garaiko buztinezko ontzi batzuk ere topatu zituzten Irungo Junkaleko elizaren inguruan. Baliteke orduan Oiartzungo Arditurrin meatzeak ustiatzen hasi izana, handik zilarra, burdina, etab. atera nahian. Oiaso, gainera, Tarracotik (Tarragona) abiatutako erromatar galtzadaren amaiera-puntua zen. Iruñetik zetorren delako galtzada⁵. Ez da ahaztu behar, ordea, Ebro ibaian Mediterraneo itsasotik Logroño ondoko Vareiaraino (Varea) nabigazioa zegoela¹³. Gainera Irunen bertan Ama Xantalengo elizan erromatarren garaiko nekropolia dago. Hor zeramikazko ontzietan gorpuen errautsak aurkitu ziren⁷.

Erromatarrek gure lurraldetik elikagaiak, zura, mineralak, gizakiak, etab. eraman zituzten. Horretarako kokalekuak zituzten Bizkaiko Foruan, Irunen edo Lapurdiko Getarian. Iruña-Veleiako gotorlekua

ere K.a. I. mendearen amaiera aldera hasi ziren eraikitzen. Badakigu erromatarrek Bizkaiko itsasoan beren ontziekin kabotajea (egunez eta kosta bistatik galdu gabe, lurmuturretik lurmuturrera) nabigatzen zutela. Agripak kostalde hori ongi ezagutzen zuen, kantauriarren aurkako gerran bertan ibili zelako⁴.

Haitzuloei dagokienez, Gipuzkoan Debako Ekain IV eta Zestoako Amalda ditugu aipagarri. Ekain IVko aztarnategian zeramikazko zati batzuk eta ugaztunen hezurak azaldu ziren, erromatarren eraginekoak¹⁴. Amaldan, berriz, indusketako I. mailan harri-industria, zeramika, metalezko piezak eta faunaren hezurak azaldu ziren, garai horretakoak izan daitezkeena. Harri-industriakoak arraspa bat, zulakaitz, bat, zulagailu bat, bi harri-xafla bizkardun, etab. aurkitu ziren. Zeramikari dagokionez, lau ontziren zatiak (batzuk apainduak), ertz zati bat barruan kordioa duela, beste sei zati apaindu, bost ertz zati, hondo lauko bost zati eta abar aipa daitezke. Brontzezko omega erako pieza bat eta kobre/brontzezko eraztun zatia ere bai. Animalia-hezurak, berriz, espezie hauek ziren: zaldi, zezen, basazezen, etxe-ahuntz, ardi, txerri, basurde, orein, uso, txolarre eta abarrenak⁹.



3.9. irudia. Irungo Oiasso museoa.

3.4. K.o. I. MENDEA

K.o. I. mendean “pax romana” deritzon bakealdia izan zen, eta erromatarrak lehengaiak ustiatzen, merkataritza garatzen eta inperioko lurraldeak erromatartzen saiatu ziren.

3.4.1. Akitaniaren egoera

Akitaniari dagokionez, K.o. I. mendearen amaieran eta II. mendearen hasieran probintzia lehengo mugetara itzuli zen, hau da, Novempopulania hartzen zuen lurraldera. Hazparnen aurkitutako oroitarrian Vero izeneko batek eskerrak ematen dizkio jainkoari galia-rrengandik bereizita Novempopulania probintzia (antzinako Akitania) eratu zelako. Bestalde, Nafarroa Beherean K.o. 30. urtean Immus Pyrenaeus (Donazarre) izeneko kanpamentu militarra eraiki zuten, eta kolonizazio-gunea izan zen. Postu horretatik lehorreko merkataritza-harreman handiak kontrolatzen ziren erromatarren Hispania Ziterior-en eta Akitaniaren artean. Baita K.o. II. mendean ere. Beste gotorleku bat Lapurdum (Baiona) zen. Akitaniako Novempopulania eta itsasoko bideak kontrolatzea zuen bere egin-kizuna³. Aztarna arkeologiko gehienak K.o. III. mendekoak izan arren, bertan aurkitu diren txanponek erromatarrak Baionan K.o. I. mendiaz gero zeudela iradokitzen dute¹⁵.

Aipagarria da, bestalde, Lapurdiko Getarian “ceteria” edo arraina gazitzeko zegoen gunea. K.o. I. mendiaz gero ari zen lanean. Garai hartan oso estimatua zen “garum” izeneko arrain-saltsa. Erromako sukaldaritzan plater garrantzitsu guztiak ontzeko erabiltzen zuten¹⁶.

3.4.2. Oiaso

Baskoien lurretan zegoen hiri honek oparoaldia izan zuen K.o. I. mendean zehar. Vespasiano enperadoreak K.o. 73-74. urtean Erromako zuzenbidea Hispania osora hedatu zuen, eta, ondorioz, hirietako administrazioan kargua zutenak Erromako hiritar bihurtzen ziren. Oiaso hiria ere leku estrategikoan zegoen, itsas ertzean eta Tarragonatik zetorren galtzadaren amaieran. Gainera, Akitaniarekin muga-mugan zegoen, eta inguruan Arditurriko meatzeak zituen. Hiriguneak 12-15 bat hektarea zituen, eta bertan erromatarren erako eraikinak zituzten: terma edo bainutegi publikoak, adibidez. Arrantza, merkataritza, meatzaritza, zeramika, eraikuntza, nekazaritza, garraioak, elikadura, etab. garatu zituzten. Bizi-maila handiko hiria zen Oiaso⁵.

3.10. irudia. Oiartzun. Arditurri Aiako Harriaren azpian.



Bestalde, Irungo Ama Xantalengo ermitan erromatar garaiko nekropolian aurkitutako ontzi eta errautsak gehienbat K.o. I. edo II. mendekoak dira⁷, lehen mendearen erdi aldean eraiki baitzuten nekropolia. Arditurrin zilar-galena eta burdina ateratzen jarraitu zuten, Hondarribiko Higer lurmuturraren babesean ainguratuta zeuden ontzietan eramateko. Elikagai-garraioa ere bazegoen itsasoz; izan ere, esana dugunez, Lapurdiko Getarian garai hartan arrainak gazitzeko lekuak baitzeuden¹³. Irunen Junkaleko plazan ontziratzeko lekua zegoen, eta Irungo Bentetan, Larraburu baserriaren azpian, zegoen, dirudienez, kai garrantzitsuena. Erromatarren ontziek egunez nabigatzen zuten lurmuturretik lurmuturrera, hiruzpalau korapiloko abiaduraz⁴.



3.11. irudia. Irungo Junkaleko Andre Mariaren parrokia.

3.4.3. Morogi, Menosca, Vesperies

K.o. I. mendean Plinio Zaharrak zioenez, barduliarren “oppida” edo herriak ekialdetik mendebaldera Morogi, Menosca eta Vesperies ziren⁷. Kostaldean jarraian Portus Amanum edo Flaviobriga (Castro Urdiales) ere aipatzen du.

- Morogi non kokatuta zegoen ez dakigu ziur. Gai horri buruzko hainbat hipotesi plazaratu izan da, baina orain arteko aztarna arkeologikoen ez dute auzia ebatzi, nahiz eta Urumea ibai inguruan Donostia aldean aztarna gehienak aurkitu¹⁷. Batzuentzat

Morogi Astigarragako Ergobian egon zen, baina beste batzuen ustez Menosca zen Donostia inguruan zegoena. Hala ere, azken aldiko datu arkeologikoen arabera badirudi egokiena Donostiako hirian bertan zegoela pentsatzea dela¹³. Kontxako badian, adibidez, urpean horma meheko godaleta topatu zuten¹⁸.

- Menosca herriaren kokalekuaz ere auzia ebatzi gabe dago, nahiz eta Getaria eta Zarautz ingurua hartzen zuela dioen iritzia nagusitzen ari den. Dena den, Zestoatik nahiko gertu daude Zarautz nahiz Getaria, eta pentsatzekoa da Menoscaren eragina mendi-bidetan zehar bertaraino helduko zela.



3.12. irudia. Zarautz. Andre Mariaren parrokiako indusketak.

Zarauzko Andre Mariaren parrokian, adibidez, egonleku erromatarra aurkitu dute indusketetan, K.o. I. mendean hasi eta gutxienez beste lau mendetan jarraipena izan zuena. Eraikinak eta aztarna ugari topatu dute. Adibide gisa 7.500 inguru zeramika zati zeudela esango dugu¹⁹. Bi eraikin nagusi eta horien inguruan eraikin txikiagoak ere bazeuden²⁰. Zarauzko parrokiako aztarnategiak hartzen zuen lekua (nondik norainokoa zen) 2005. urtean erabaki zuten²¹. Hala ere, lanak lehenago hasiak ziren. Lehenbizi elizako kanpandorrearen orubea induskatu zuten, eta 2001. urteaz gero elizaren orubea²². Harrezkero urtero egin dituzte aurkikuntza garrantzitsuak. Hurrengo urtean, 2002an, erromatarren garaiko kokalekua aurkitu zuten²³.



3.13. irudia. Aia. Urozperoetaxiki baserria.

Getarian ere aspaldi hasi ziren (orain hamabost bat urte) herriko zenbait gune induskatzen. 1991ean San Roke kalean, adibidez, erromatarren garaiko arrastak azaldu ziren. Salvatore parrokan ere bai, besteak beste 757 zeramika zati topatu baitzituzten. Kale Nagusiko orube batzuetan ere bazeuden aztarnak. Halaber Elkano kaleko beste batzuetan. Gehienak K.a. I. mendekoak eta hurrengo mendekoak ziren²⁴.

Aiako Elkano auzoan (Zarauzko Arbiun aztarnategitik gertu), beste aztarnategi garrantzitsu bat Urozperoeta (orain Urezberoeta) deitutako baserri ondoko Kanposantu Zaharrekoa da. Lehen indusketa-lanak 2001ean egin ziren, eta erromatarren garaiko egonlekua topatu zuten²⁵. 2002. urteko indusketetan torneatu gabeko zeramika zatiak, torneatutakoak, harrizko eta metalezko piezak, etab. azaldu ziren²⁶. 2003. urtean amaitu ziren induskatze-lanak. Aztarnategiak, guztira, 130 metro karratu ditu, eta gehienbat torneatu gabeko zeramika arrunteko piezak aurkitu ziren²⁷.

- Plinio Zaharrak barduliarren hiritzat jotzen du Vesperies ere. Azpeiti inguruan egongo zela pentsatu izan da, segurtasun handirik gabe pentsatu ere. Dena den, inguruan Azkoitiko San Martin ermitan erromatarren garaiko nekropolia aurkitu zuten, Irungo Ama Xantalenen dagoenaren antzekoa¹³.

K.o. I. mendetik aurrerako beste nekropoli bat Bizkaiko Forukoa da, hurrengo lau mendeetan ere martxan jardun zuena²⁸. Garai bertsukoa da erromatarren garaiko Foruko portua ere²⁹.

Bestalde, Iruña-Veleia kokalekuak ere garapen aldia zuen.



3.14. irudia. Azkoitia. San Martin ermita.

3.15. irudia. Irungo Ama Xantalengo ermita.



3.5. K.o. II. MENDEA

K.o. II. mendearen erdi aldera Klaudio Ptolomeo egiptoarrak neurketa geografikoak bildu zituen bere “Geographike uphegesis” lanean. Barduliarrei buruz ari dela, Ptolomeok hiri hauek aipatzen ditu: Menosca, Tritium Tuboricum (Mutriku?), Gebala (Gebara?), Gabaleca (Galarreta?), Tullonium (Dulantzi?), Alba (Albeniz?), Segontia Paramica eta Tabuca⁷. Segondia Paramica Burgosko Villarcayo ondoan dagoen Cigüenza Paramica izan daiteke, baina hori ez dago

barduliarren lurraldean, autrigoienean baizik. Barduliarren lurretan bada beste “Çegondia” edo “Segontia” bat, XIV. mendean geroko agirietan azaltzen dena, Zestoa/Errezilgo mugan, Txorondegin. Tabuca non egon zitekeen ere ez dakigu. Barduliarrek eta baskoiek kostaldean Menlasci ibaia zuten muga (Oiartzun ibaia?) eta barduliarrek eta karistiarrek Divae (Deba) ibaia¹³.



3.16. irudia. Mutriku. Tritium Tuboricum?

Barduliarren lurretan, Gipuzkoako Idiazabalen, K.o. II. mendean egindako kobrezko txanpon handiak aurkitu zituzten: bi Antonino Piorenak, bat Faustina Maiorrena eta beste bi Komodorenak. Hortik gertu, Zegamako San Pedro ermitan, K.o. II. edo III. mendekoa den erromatar-hillarria topatu zuten⁴.

Esan beharra dago, gainera, barduliarrak erromatarren armadan ere ibili zirela, tropa laguntzaile moduan. “Cohors fida Vardullorum civium Romanorum equitata miliaria” izeneko taldea, adibidez, Eskoziako mugan egon zen K.o. II. mendean eta hurrengo mendearen lehen erdian⁷.

3.5.1. Akitania

K.o. II. mendean, Trajano enperadorearen agintaldian (orduan lortu zuen Erromako Inperioak hedaturarik handiena), Saint-Bertrand-de-Comminges erromatarren kolonia bilakatu zen, nahiz eta bertako indigenen oinarria garrantzitsua izan. Erromatarren bizimodua ezartzen eragin handia izan zuen, inola ere, hirietako goi-mailako jendeak. Badirudi armada ez zela izan erromatartzearen bultzatzaile nagusia.

Erromatarrek Akitanian meatzeak ere ustiatu zituzten, zilar-galena, kobrea eta burdina, esaterako. Pirinioen hegoaldetik etorritako jendea ere bizi zen Akitanian; izan ere, Astorgatik abiatuta Iruñetik Bordeleraingo galtzada erromatarra baitzegoen.

Esklaboak ere baziren garai hartan Akitanian. Esklavo bakoitzak bere jabea izaten zuen, hau da, aristokrataren bat. Ekialdeko kultu eta erlijioak hedatzen eragin handia izan zuten esklaboek. Akitaniako bertako jainkoak ere baziren, ordea. Euskararen edo akitanieraren bidez argitzen diren izenak daude Couseransen, Commingesen eta abarren. Indigenek beren kultuetarako tenpluak ere bazituzten Akitaniako hainbat lekutan: Atarratzen, Saint-Béat-en, Saint-Pé-d’Arde-en eta abarretan¹.

3.5.2. Oiaso, Morogi eta Menosca

- Oiaso hiria K.o. II. mendean indartsu mantendu zen. Merkataritza-harremanetarako eremu zabala zuen: lehorrean Garona ibaiaren ezker aldeko lurrak, Ebro ibaiaren erdi aldeko harana eta Pirinioen mendebaldea. Itsasoz, berriz, Bordeletik hasi eta gutxi gorabehera Santander alderainoko eremua zeukan.



3.17. irudia. Getariako mahastiak.

Erromatarren hirietan, beraz, besteak beste Oiason, aurrerakuntzah andiaki zanz irena arkitekturan. Adreilua, teila eta mortairu bereziak erabili zituzten. Gainera ubideak, gangak eta arkuak egiten ere bazekiten. Harria lantzen maisu ziren. Errementaritzan, berriz, hainbat eratako iltze eta larakoak egiten zekiten⁵. Nekazaritzan ere aurreratuak ziren, eta mahatsaren (ardoaren) kultura beren mendeko lurraldeetara hedatu zuten.

- Menoscatzat jotzen den lurraldean, hiru aztarnategitan aurkitu dira K.o. II. mendeko arrastoak. Zarautzen Antonino Pioren kobrezko txanpon handi bat jaso zen hondartzan, eta hondartza ondoko kale baten estoldan (Meagako errepidea hasten den lekutik gertu, Trinitate kalean) Adriano enperadorearen sestertzioa ere bai.



3.18. irudia. Donostia Astigarragako Santiagomenditik.

- Morogi hiriaren kokalekua zein den seguru ez badakigu ere, azkenaldian Donostiako hirian aurkitutako aztarnek bertan egon zitekeela iradokitzen dute. Ardotarako anforaren pieza zeramikoak, K.o. II. mendekoak, aurkitu zituzten Santa Klara uhartearen babesean. Kontxako hondartzan, berriz, Adriano enperadorearen sestertzioa, K.o. 134-138. urte bitartean egina, topatu zuten. Alde Zaharrean ere garai hartako pieza zeramikoak zeuden¹³. Alde Zaharreko Santa Teresa komentuan ere aurkitu ziren K.o. 50-200 bitarteko aztarnak¹⁷.



3.19. irudia. Zarauzko Andre Mariaren parrokia.

3.6. K.o. III. MENDEA

Garai hartan Erroman gerra zibilak izan eta egoera nahasi samarra zen. Dena den, Karakala enperadoreak 212. urtean Erromako hiritartasuna inperioko biztanle guztiei eman zien, baina istiluek jarraitu egin zuten. Gure inguruan, besteak beste, Juliobriga (Reinosa), Iruña-Veleia eta Lapurdum (Baiona) gotortu egin zituzten⁵. Baionako hiri gotortuak 375 x 275 metroko laukizuzena osatzen zuen (10 ha-ko azalera eta 4.500 biztanle zituen gutxi gorabehera). Hiri haiek bi kale nagusi elkarzut izaten zituzten. Batetik “decumanus maximus” deitutakoa zegoen, ekialdetik mendebalderako orientazioa izaten zuena, eta bestetik “cardo maximus” izenekoa, ipar-hego orientazioa zuena. Bi kale nagusi hauen muturretan egon ohi ziren hirira sartzeko portaleak¹.

Aipatzekoa da, zalantzarik gabe, K.o. III. mendearen erdi aldera Hazparnen egindako oroitarria. Marmolean egina da, eta hamabi lerroko latinezko inskripzioa du, letra larriz idatzia⁴.

Mundu germaniarra ere indartzen ari zen, eta Erromako armada txikiegia zen haiei arrakastaz eusteko. Bertako menditarrek edo desertaturiko soldaduek ere “bagaudae” izeneko taldeak osatuta eraso egiten zieten Erromako agintariei¹.

3.6.1. Antoninoren ibilbidea

Giro horretan garrantzi handia zuen erromatarrentzat galtzada-sareak, eta Antonino saiatu zen informazioa jaso eta galtzaden deskribapena egiten, bidean zeuden hiriak aipatuz. K.o. III. mendearen amaiera aldera amaitu zuen Antoninok bere lana.

Guretzat interesgarria da 630 km inguru zituen Astorgatik (Asturica) Bordelerainoko (Burdigala) galtzadaren deskribapena. Briviescatik eta Oundleia-tik Deobriga (Puentelarra) igaro eta Iruña-Veleia-ira iristen zen. Hortik Suessatio-ra (Gasteizko Zuhartzura), Tullonio-ra (Dulantzi), Egirazera, Durruma Dinemiliagara, Aracilum-era (Uharte Arakil), Alantone (Atondo) eta Pompelonera (Iruña) iristen zen. Iruñetik, berriz, Pirinio aldera zihoan, eta beste aldean Immus Pyrenaeus-tik (Donazaharre) iparraldera, Akizetik aurrera Bordeleraino⁷. Ilerda eta Legio VII Gemina arteko galtzadan baskoien bi hiri aipatzen ditu: Kaskante eta Kalagorri. Autrigoiak ziren, bestalde, Tritium (Tricio) eta Birobesca (Briviesca)⁴.

3.6.2. Menosca

- Getariako herrian, Zarautz familiakoen jauregiaren orubean, lehen zundaketa arkeologikoa 2004an egin zuten, eta bertan Erromako inperioaren garaiko aztarnak topatu ziren, K.o. II-V. mende bitartekoak. Urola eta Oria ibaien eta Ernio mendiaren arteko lurraldean erromatarren idaztietako Menosca egon daitekeela diote, eta Getariako aztarnategia inguru horretakoa izango litzateke.



3.20. irudia. Getariako Zarautz etxearen fatxada (argazkian erdikoa).

- Zarautzen, berriz, udalerrian dagoen Arbiun mui-noan indusketa-lanak 1993an hasi zituzten. 1994. urtean jarraipena eman zitzaizen lanei, eta zenbait material aurkitu zuten: zepa-nodulu solteak eta zepa-kontzentrazioak, zeramika arrunta eta tornuan landutako zeramika “akitaniarra”, harrizko materialak eta metalezko zatiak, etab. Kokaleku horretako aztarnak K.o. III. mendearen amaierakoak edo IV. mendearen hasierakoak dira³⁰. Ondoren egindako indusketetan ere azaldu dira aztarnak; hareharrizko hiru bloke irregular, adibidez, eta material hori gertuenik Pagoeta mendian edo Aizarnan zuten. Ikatz-puskak, zepak, ofita-puskak, zeramika arrunta eta tornuan landutakoa, eta beste zenbait aztarna topatu dira. Bertan burdin mea lantzen zuten, horretarako gutxi garatutako instalazioak bazituzten ere³¹.

3.6.3. Iruña-Veleia

K.o. III. mendearen amaieraz gero Erromako Inperioaren krisialdiak eragina izan zuen Iruña-Veleian. Lehen jendearen bizileku ziren etxeak hustu egin zituzten, eta harresia eraikitzeari ekin zioten, segurtasun handiagoa izan nahian³. Harresien barrualdeak 11,6 ha-ko azalera du, eta kilometro eta erdiko perimetroa ere bai. 1997. urtean perimetro horren 458 metro, portale bat, ate txiki bat eta hamasei dorre induskatuta zeuden³².

Iruña-Veleia hiria karistiarren lurretan zegoen, eta, arkeologoen ustez hiriak garai batean 50 hektarea baino gehiago zituen. Hirian nekazaritza eta zeramika garatuta zeuden. Bainuak, antzokia eta anfiteatroa ere bazituzten³³. Gainera 2006ko ekainean jakinarazi zuten etxe baten zimenduetan adreiluetan euskarazko hitzak inskribatuta zeudela: *urdin isar; zuri urdin gorri; edan ian lo; ian ta edan; jaun; geure ata zutan; iesel; ioshe ata ta mirian ama*. Horiek dira topatutako hitzak eta esaldiak. Horrez gain, Iruña-Veleiako beste gune batean kalbario zahar bat, munduko zaharrena, ziotenez, topatu zuten³⁴. Geroxeago arkeologoek idazkun gehienak III. mendekoak zirela baieztatu zuten, baina aurkikuntzak benetakoak ote ziren zalantzak zituen zenbaitek³⁵. Ikerketa-batzorde berezia

izendatu zen emaitzak egiazkoak ala iruzurra ziren erabakitzeke. Hizkuntzalari, kimikari, arkeologo eta abarrez osatutako batzorde bereziak aztarna “faltsuak” zirela jakinarazi zuen³⁶. Beraz, besterik frogatzen ez den bitartean, euskarazko inskripzio horiek ezin dira egiazkotzat hartu.

3.6.4. Antzinaroko euskara

3.6.4.1. Akitaniako inskripzioak

Iruña-Veleiako ustezko iruzurreko K.a. III. mendeko esaldi laburrak alde batera utzita, garai hartako euskararen (edo akitanieraren) lekukotasunak inskripzioetan azaldu dira. Latinez idatzitako inskripzioetan orduko euskararen bidez argi daitezkeen izenak daude tarteka. K. Mitxelenak horietako hamabi inskripzioen berri eman zuen³⁷. Lehena Pirinioetako Aran ibarreko Vielha-tik gertu dagoen Escunhau herrixkakoa da. Besteak beste, marmolean “Ilvrberri-xo” eta “Anderexo” hitzak ditu.

Bigarren inskripzioa St.-Beat-en (St.-Bertran-de-Comminges-tik gertu) aurkitutako marmolezko aldarean dago. “Astoilvn / no” hitza du. Hirugarrena Eup-en, St.-Béatetik gertu, marmolezko oroitarrin batean zegoen. “Sembetten / Bihoscin / nis” dio inskripzioak. Laugarren inskripzioa Arguenos herrixkan (St.-Gaudens-tik gertu) marmolezko hilarri batean zegoen. “Bonsilexsi / sembexson” dio. Bosgarrena Commingesko Sauveterre-de-Nébouzan-en zegoen. Gero desagertu egin zen. Besteak beste, hitz hauek zituen: “Senicco senix / sonis ... andoxponnni...”.

Seigarren inskripzioa Garona Garaiko departamentuan kokaturiko Gourdan herrixkakoa da (Barbazango kantonamenduan dago). Bertako Basert-eko Andre Mariaren elizan zegoen marmolezko aldare batean. “Baeserte / deo / Harbelex / Harsi / F(ilius)” dio. Zazpigaren inskripzioa ere Garona Garaiko departamentuan zegoen. St. Gaudens eta St.-Bertrand-de-Comminges arteko Ardiège herrixkan, marmolezko aldarean inskripzioaren azken lerroan honako hau dago idatzirik: “... Leheren [...] / Vriaxe / Ilvnosi / filia”.

Zortzigarren inskripzioa St.-Aventin herritxoan topatu zuten, Garona Garaiko departamentuko Bagnères-de-Luchon-dik ekialdera. Marmolezko aldarean honako hau du idatzita: “Abellionni / Cisonen[?] / Cissonbon / nis fil(ius) / V. S. L. M.”. Bederatzigarren inskripzioa Garona Garaiko departamentuko Luchon-dik hurbil aurkitutako oroitarri batekoa da: “Hotarri . Orcotarris. FF(ilio) / Sentarri . Eloni . filiae / Bontar . Hotarris . F(ilius) . ex . testamento” du idatzita. Hamargarren inskripzioa Bagnères-de-Luchon-dik ipar-ekialdera dagoen Borderes-en-Louron-en topatutako oroitarri batekoa da. Hau dio: “[D] M / ? / Harsori . Sen / ixsonis . F. V(ia) / Havtense . som / enaris . F(ilia) . vxsor / Oxson . et . Gere / rexo . et . Seve / rvs . fili . h(ic) . s(iti) . s(unt) / V(iuus) . Seranvs . Ha / rsori . F(ilius) . T(itulum) . P(osuit)”.

Hamaikagarren inskripzioa Zuberoako Atharratzetik bi ordura dagoen Madalenako ermitan aurkitu zuten. Honela dio: “Fano / Heravs / Corritse / he . Sacrvm / G. Val(erius) . Vale / rianus”. Orain arteko hamaika inskripzioak Akitaniakoak baldin badira ere, hamabigarrena Nafarroa Garaian Tafalla eta Zangoza artean dagoen Lerga herrixkakoa da, eta hau dio: Vm . me . Sa . harfi / Nar . hvn . ge . si . A . bi / svn . ha . ri . fi . lio / ann . XXV . t . p . s . s”³⁷.

K. Mitxelenak aspaldi argitaratutako eta Antzinaroko euskal izenak dituzten inskripzio hauez gain gehiago ere badira Akitanian, gehienak Pirinioetako iparraldean aurkitu baitira. Dena den, Pirinioetatik hegoaldera ere badira antzeko ezaugarriak dituzten lekukotasunak. Guztira, ipar eta hegoan, laurehun bat pertsona-izen (hildakoenak edo omendutakoenak) eta hirurogeita hamarren bat jainko-izen bildu dira, gehienak Garona ibaiko ezker aldean.

Antzinaroko euskararen lekukotasunak Akitania osoan ez ezik, Kataluniako Cerdanyan eta Proventzako Arles hiri ondoko Amelie-les-Bains-en ere topatu dira. Narbonan agertutako aldare batean “Herculi Ilunno Andose” eskaintza dago, eta handik gertu

topaturiko beste batzuetan “Larrasoni” hitza azaltzen da. Beraz, batzuen ustez Antzinaroko euskararen lekukotasunak Pirinioen ertz batetik (Bizkaiko itsasotik) Mediterraneoraino daude.

Akitaniako inskripzioetako euskal izenetan dauden euskal-sustrai batzuk hauek dira: “Andere”, “Andosso”, “Attaco”, “Belex-”, “Bihox”, “Cison-”, “Enne-”, “Ilun-”, “Losa-”, “Nescato”, “-sahar”, “Sembe-”, “Seni-”, “Umme-”, “Uri-”. Beste zenbait ere badira, guztira onomastikako hirurogeiren bat izen zati bildu arte. Tarteka-marteka animalien izenak ere badira: “Hars-”, “Asto-”, etab. Zenbakiak ere azaltzen dira inoiz: “Laur-”, “Bors-”... Bestetan koloreak aipatzen dira (“Belex-”, “Gorri-”...), edo zuhaitzak (“Artahe-”...), edo adjektiboak (“-berri”, “-andi”, “-il(h)un”...), eta abar.

Inguruko hizkuntzek ez bezala “H asperenduna”, Antzinaroko euskararen ahoskatu egiten zutena, dip-tongoen atzean eta kontsonantearen atzean ere azaltzen da. Antzinateko euskararen, geroagokoan bezala, hitzaren bukaerako “r” hotsa “n” bihurtzen da. Horixe dugu “Ilur-” eta “Ilun-“ alternantzian, esaterako.



3.21. irudia. Zestoa. Illurdangoikoa baserria.

3.6.4.2. Pirinioez hegoaldeko inskripzioak

Pirinioez hegoaldean Antzinaroko euskal hitzak dituzten latinezko inskripzioak iparraldean baino askoz ere gutxiago topatu dira. Dena den, Arabako erdialdean K.o. I-III. mendeetako hilarri batzuetan izen euskaldun hauek aurkitu dira: “Attia” jainko-izena (Olabarrin, Iruña Okan). “Illuna” emakume-izena (Trespenden, Iruña Okan), “Helasse” jainko-izena (Miñaon), “Aituneo” jainko-izena (Araian) eta “Lutbelscottio” eta “Luntbelsar” pertsona-izenak (Donemiliagako Durruman).

Gipuzkoan Andrearriagan, Oiartzundik gertu, “Belteson” izena dugu. Nafarroan, Urantzia ondoko Mues-en “Ordunetsi” iberiar izena dago, euskarazko “ts” fonema txistukari eta guzti. Lizarra ondoko Barbarinen “Selatse” jainko-izena agertu zen. Lizarra ondoko Leraten, berriz, “Losae” jainko-izena dugu; baita Zirauki herrian ere. Garestik ipar-mendebaldera dagoen Girgillano ondoko Argiñaritzen “Loxae” aurkitu zen, eta Garestik hegoaldera Larragan “Errensaie” izena. Larragatik gertu, Muruzabal-Andionen Andelos erromatar hiria dago, eta bertan euskal erara ahoskatzten den “Urchatetelli” izen iberiarra dugu. Muruzabal-Andionen bertan “Larrahi” izena ere aurkitu zuten. Tafallan “Arginsen” izena zegoen idatzita.

Oraingo Zaragozako probintzian, ipar-mendebaldean, Sofuentes herrian “L.sanharis” izena eta “Naru.eni” emakume-izena daude. Ondo samarrean, Sadaba herrian, “Ederretta” emakume-izena dugu. Gertu dagoen Ejea de los Caballeros (erromatarren garaiko Segia) ere aipatu beharra dugu; izan ere, K.a. I. mendeko albisteetan esana dugu Ascoli-ko brontzezko plakan Segiako eta inguruko zaldunen izenak agertzen direla. Hauek dira izen horietako batzuk: “Enneges”, “Agerdo”, “Agirnes”, “Arranes”, “Arbiscar”, “Umarbeles”, etab. Zaragozako probintzian, Ejea eta Huesca hiriburua bitartean, Valpalmas herrixkan “Serhuhoris” izena dugu.

Zaragoza hiriburutik hego-mendebaldera Botorrita herria dago, zeltiberiarren Contrebia Belasica, alegia. Brontzezko plaka batean “-eihar” hitza ageri da, hots,

euskal izen baten zatia; halaber, Errioxa eta Soria aldean, Cidacos eta Linares ibaien goi-arroetan, non euskal izen hauek topatu baitira: “Ar...thar”, “Arancisis”, “Oandissen”, “Agirseni”, “Lessuridantaris”, “Sergia” emakume-izena (iberiarra izan daiteke), “Onso”, “Argisar”, “Sesenco”, “Attasis” eta “Onse”².

3.6.4.3. Euskararen hedadura Antzinaroan

Gaur egun euskaraz egiten den lurraldeetan erromatarren garaian ere egiten zela onartzen dute ia ikerlari guztiek, eta lurralde horretatik kanpo egiten zen edo ez erabakitzeke zenbait metodo daude. Testuetan dauden euskal izenak eta toponimia aztertzea beharrezkoa da. Toponimiaren barnean bukaeran “-os” edo “-ues” atzizkiak edo baliokideak dituzten izenak interesgarriak dira, euskararen iparraldea eta ekialdea hartzen dituztelako.

Erromatarren garaian euskarak ia Akitania osoa hartzen zuen. Garona ibaitik hegoaldera hiru gunez zeuden: Bordele aldea eta Tolosa aldea (non zeltak bizi baitziren) eta Agen (lehen Aginum) ingurua. Badirudi Akitaniako hego-ekialdean Salat ibaiak egiten zuela euskararen muga.

Pirinioetatik hegoaldera mendebaldean Kantabriako Reinosan aurkitutako hilarria besterik ez dugu, eta bertan zeltiberiar izenak agertzen dira. Dena den, Kantabriako ekialdean autrigoiak bizi ziren, eta haiek, guztiek ez bazen ere, orduko euskaraz egiten zuten. Hegoaldean Errioxa, Burgos eta Sorian aurkitutako euskal toponimoak ez dira gutxi. Errioxan kontzentrazio handiena Ojacastro ibaiaren arroan dugu. Burgosen Tiron ibaiaren arroan eta Oka zein Arlanzón ibaien goi-arroetan euskal leku-izen ugari dago. Burgosen bertan, hiriburutik gertu, Ibeas de Juarros eta inguruan ere ugari dira euskal toponimoak. Autrigoien lurrak ziren hauek.

Errioxako hegoaldean mendebaldetik ekialdera Tiron, Oja, Najerilla, Iregua, Leza, Jubera, Cidacos eta Linares ibaiak daude, eta hauetan guztietan euskal toponimoak bizirik dira. Badira, hala ere, Errioxa, Burgos eta Soriako euskal toponimoak Erdi Aroan

Errekonkistaren garaian euskaldunak hegoaldera joanda sortu zituztenak direla diotenak. Errioxako ekialdeko bost ibaien inguruetan eta Soriako partean (Tierra de Yanguas eta Tierra de San Pedro Manrique deitutakoetan) latinezko hilarrietan tarteka euskal hitzak azaldu dira, ordea. Errioxan Tiron ibaiaren arroan Herramelluri herriaren ondoan dagoen Libian, “Umarillum” eta “Andibels” izenak ditugu, euskarazkoak dirudienez.

Nafarroatik ekialdera, Aragoi, erromatarrak heldu zirenean euskaraz egiten zuten bi eskualde ditugu: batetik Jaca eta ipar-mendebaldeko lurak, Huesca hiriburutik iparraldera, eta, bestetik, Sos (Zauze), Unicastillo, Sofuentes eta Ejea de los Caballeros ingurua (Aragoiko Bortziriak). Dena den, bada euskarak Pirinioetan Mediterraneorainoko hedadura zuela defendatzen duenik (Joan Corominas, adibidez)².

3.7. K.o. IV. MENDEA

Teodosio enperadore zela (K.o. 379-395) godoak Balkan mendien eta Danubio ibaiaren artean finkatzea lortu zuten, Danubioko muga zaintzearen truke. Kristautasunari dagokionez, apezpikuek ziotenez botere erlijiosoa enperadorearen gainetik zegoen, eta enperadorea eskumikatu ere egin zuten. Azkenean enperadoreak inperioa erdibitu egin zuen: Ekialdekoa Arkadio semeari utzi zion, eta Mendebaldekoa Honorio semeari.

K.o. IV. mendearen bukaeran eta V. mendearen hasieran Iruña-Veleia eta Lapurdum (Baiona) hirietan tropak ezarri zituzten: “cohors gallica” eta “cohors Novempopulana”, hurrenez hurren⁴.

3.7.1. Akitania eta bere Eliza

Hiriak harresituta, inbasioen eta “bagaudae”en aurkako babesa lortu zen. Erromako tetrarkek probintziaki nperiokoh iriburuarekin otuagon ahiz ituzten. Orduan Akitania handia hiru probintzian zatitu zen: Lehen Akitania (Bourges hiriburu zuela), Bigarren Akitania, “Burdigala” edo Bordele hiriburu eta beste bost hiri zituela, eta Novempopulania. Azken honetan Eauze zen hiriburua, eta honako hiri hauek ere bazituen: Bazas, Akize, Lectoure, “Convenae” (Saint-Bertrand-de-Comminges), “Consortanni” (Saint Lizier), “Bearnenses” (Lescar), Aire, Olorue, Auch (Auski), Bigorre (Aturbe edo Tarbe) eta “Boiates” (Argenteys, Arcachon aldeko Biganosen)¹.

Bestalde, Konstantino enperadoreak K.o. 312. urtean kristautasuna onartu egin zuen, eta K.o. 380. urtean Teodosio enperadoreak erlijio ofizialtzat aldarrikatu zuen³. K.o. 314. urtean bi elizbarruti, bakoitzak bere apezpikua zuela, zeuden Bordelen eta Eauzen. K.o. IV. mendearen amaieran edo hurrengo mendearen hasieran sortu ziren Bazaskoa eta Auchkoa (Auski). Arkeologiak erakutsi duenez, kristau taldeak baziren Bordelen garai hartan.

Akitanian sortu berria zen Elizak bere heresiak laster izan zituen: arianismoa (Jesus jainkoa zela ukatzen zuena) eta prisizilianismoa (doktrina-mugimendu aszetikoa). Azken hau bitan kondenatu zuten: lehenbizi Zaragozan K.o. 380. urtean, eta bigarrenez Bordelen K.o. 385. urtean¹.

3.7.2. Baskoien lurraldeko egoera

- Erromako Inperioaren krisiak eragin handia izan zuen Oiason K.o. IV. mendean. Beste leku askotan bezala, Oiasoko bizimoduak motelaldia izan zuen. Badirudi abelazkuntzak gorakada izan zuela eta jendea haitzuloetan gehiago ibili zela³. Oiaso aldean K.o. IV. mendean kristautasunaren arrastoak azaldu ziren. Behobian, adibidez, Magnentzio (K.o. 350-355) usurpatzailearen aginduz egindako txanpon bat aurkitu zen. Txanponean krismoia (Kristoren anagrama) eta alfa eta omega letra grekoak ageri dira, hots, ikur kristauak. Ontzien apainduretan ere ikur kristauak egiten hasi ziren: gurutzea, krismoia, etab.⁵



3.22. irudia.
Oiartzun.
Arditurriko
meategie-
tarako
sarbidea.

Irungo Junkaleko elizako aztarnategian eta Santiago kalekoan zeramikazko piezak topatu ziren. Batzuk trantsizioko Terra Sigillata Hispanica erakoak dira, baina bertako erako torneatu gabeko zeramika eta torneatutakoa ere bazeuden. Higer lurmutur ondoan, urpean, Magnentzio enperadorearen txanpon bat aurkitu zen, 353. urtean egin. Garai hartako zeramikazko piezak ere bazeuden. Oiartzungo San Estebanen egindako indusketan Konstantino (K.o. 330-335) enperadorearen txanpon bat aurkitu zuten¹³.

- K.o. IV. mendean baskoien lurraldea Erromako Inperioan ez zen hain garrantzitsua, balio ekonomiko

edo estrategiko handirik ez zuelako; mugetatik nahiko urrun baitzegoen. Pompaelo (Iruñea) hiriaz gain han-hemenka villak zeuden, hau da, nekazaritza eta abelazkuntzarako etxaldeak. Nafarroan Ledean (Zangoza ondoan), Faltzesen eta Arellanon (Lizarratik hegoaldera), adibidez, badaude villa haien aztarnak. Jauregi handiak ziren, dotoreak eta mosaikoz apainduak. Termak ere bazituzten bainatzeko. Lurjabe aristokraten bizileku ziren³⁸.

3.7.3. Barduliarren egoera

K.o. IV. mendean han-hemenka badira barduliarren lurretan aurkitutako aztarnak. Donostiako Alde Zaharreko Enbeltran kaleko 3.ean zeramika zatiak eta seguru asko IV. mendekoa den txanpon bat aurkitu zituzten¹⁷.

Oria ibaiaren ondoan, Villabonan, garai hartako txanpon bat aurkitu zen. Albizturko Beondegi I haitzuloan, berriz, torneatu gabeko pieza zeramikoak, orraziz apainduak, aurkitu ziren. Tolosako Intxurmutegi haitzuloan, bestalde, Konstantzio II.aren garaiko txanpona, K.o. 347-348koa, topatu zuten.

Zarauzko Arbiunen eta Urozperotako Kanposantu Zaharrean egur-ikatzeko laginak hartuta egindako datazioek K.o. III. mendearen amaierakoak edo IV. mendearen hasierakoak direla diote¹³.

3.8. K.o. V. MENDEA

3.8.1. Inbasioak Akitanian

K.o. V. mendearen hasieran bandaloek inbasio handia egin zuten. Oraingo Alemania eta Polonian bizi ziren, baina sueboekin eta alanoekin Rhin ibaia 406. urte amaieran zeharkatu egin zuten. Berrehun edo hurrehun mila inbaditzaile ziren guztira, eta Galian hiru urte egin zituzten. Dena den, bandaloak ez ziren Akitanian finkatu, eta 409. urteko urrian Pirinioak zehar-

katuta Iberiako penintsula eta Afrikako iparraldea hartu zituzten bizilekutzat.

Bisigodoen inbasioak denbora gehiago iraun zuen. Oraingo Errusiako hegoaldetik etorrira, Balkanetan bizi ziren, baina K.o. 402. urtean Italiara abiatu eta 410. urtean Erroma arpilatu egin zuten Alariko erregearen agindupean. Alarikoren ondorengo Ataulfo erregeak bere tropak elikatzeko Galiara joan behar

izan zuen. 412-414. urte bitartean Tolosa, Agen, Bordele eta Akitaniaraino iritsi zen. Honorio enperadorearen Konstantzio jeneralak Hispanian garaitu egin zuen, ordea.

Bitartean, pirata saxoniarrak mehatxu egiten zuten Girondako ibaiertzetan. Orduan bisigodoak berriz azaldu ziren, eta enperadoreak Erromarekin federatu gisa bigarren Akitanian, Novempopulanian eta Tolosa hiriko inguruan finkatu zituen 418-419. urteetan. Hala ere, Wallia erregearen agindupean Akitania mendean hartu zuten. Harrezkero bisigodoen lurraldeek erreinu independente izateko bidetik abiatu ziren, eta 475. urtean Nepos (edo Nepote) enperadoreak Eurikori onartu egin zion inbaditutako lurralde guztiekiko agintaritzia.

Akitanian bizimodua eta administrazioa erromatarren garaian bezalatsu mantendu ziren. Euriko (466-485) izan zen bisigodoen errege indartsuenetako bat. Pirata saxoniarrak garaitu eta Auvernia konkistatu egin zuen. Erreinuko hiriburua Okzitaniako Tolosa zen, baina erregea maiz izaten zen Bordelen¹. Elite bisigodoak erromatarren ordena bereganatu egin zuen³.

Bisigodoek Akitanian eta Hispanian zuten erreinua, ordea, ez zen guztiz sendoa. Eurikok arianismoa (heresia) onartu egin zuen, eta Galiako nahiz Erromako Elizarekin gatazkak zituen. Alariko II.a, Eurikoren ondorengoa, saiatu zen Erromako Elizarekin adiskidetzen, baina Klovis I.a katoliko bihurtu zen, eta Akitaniako kleroak dei egin zion¹.



3.8.2. Inbasioak baskoien lurraldean

Baskoien Iruñeak eta Kalagorrik V. mendera arte erromatarrei ordaindu zizkieten zergak². Bisigodoak 409. urtean Orreagatik igaro ziren (leku-izenaren lehen forma Oriarriaga da³⁷, nahiz eta guk XVI. mendeko agirietan, 1518-I-23an, “Oriarriaga” forma ere topatu³⁸, baina agian “rr” gogorrek aurreko “e” bokala “a” bihurtzeko joeragatik aldatuko zen forma, “baserri” hitzetik “basarri” atera den bezalaxe). Ez ziren, ordea, baskoien lurraldean geratu. Hala ere, lurralde hori geopolitika aldetik asko aldatu zen; izan ere, ordura arte inperioaren erdian zegoen lurralde izanik, mugako herri bihurtu baitzen. Orduan aristokrazia probintzialak germaniarrekin aliantzak egin zituen, eta udal-miliziak milizia pribatu bilakatu ziren. Ebro ibarrean 441-454. urte bitartean “bagaudae” izeneko taldeen altxamenduak izan ziren, eta tartean Aracelikoak (Arakil) ere bai³⁹. 443. urtean “bagaudae” haiei aurre egiteko Merobaudes “magistri militum utriusque militiae” izendatu zuten agintari, eta hark matxinatuak garaitu egin zituen. Jose Goñi Gaztanbideren iritziz “Araceli” hori, zalantzarik gabe, Korella ondoko “Araciel” da, eta ez Sakanako Arakil. Araciel-en labore-lurrak eta nekazaritzako produktuak ugari ziren baskoien “ager”ean zegoelako, eta Sakanako Arakil, berriz, abeltzaintzako lurraldea zen⁴⁰.

Guk beste “Araceli” bat (ara = aldarea, eta “coeli” = zerukoa, edo “zeruko aldarea”) topatu dugu baskoien (edo garai bateko barduliarren) “saltus”ean, Debako Itziar aldean. Oraingo Arakistain baserria da, zeren eta forma zaharra “Araqueriztayn” (1465) baitzuen.

3.23. irudia. Deba. Itziarko Arakistain baserria.

Etimologiaren gaia labaina izanik, besterik ez bada hipotesi gisa hartuta agian latinaren bidez azaltzekoak izango dira Debako “Aratriztayn” forma (1528) (Zestoan eta Aizarnazabalen “Atristain” baserriak ere baditugu), Zestoako “Ayaquelu” (Aiakelu) (1479), Bainuetxetik Etorra aldera dagoen leku-izena (ur beroak ere, erromatarrek hain maite zituzten termak, hortxe dira Bainuetxean), edo “Pagino” baserria (1479) (orain “Pagiyo” ahoskatzen duguna eta “pagus-i” edo “baserria”, hau da, “civitas”, “urbs” edo hiria ez dena, eta ondoren euskarazko “-no” atziki txikigarria duena, “basoko herrixka”, alegia).

Bisigodoek Hispania hartu zutenean, Toledon ezarri zuten erreinuko hiriburua, hiru mendez (711. urtera arte) iraun zuena. Handik gidatzen zituzten beren tropak, eta 472. urtean Iruñea hartu zuten. K.o. V. mendearen erdialdean, Erromako inperioaren aginpidea oso ahulduta zegoela, “bagaudae” izeneko altxamenduak zanpatzen bisigodoak ibili ziren. Bisigodoek etengabeko gatazkak zituzten baskoiekin. Errege bisigodoen kroniketan behin eta berriz azaltzen dira “domuit vascones” (baskoiak menderatu egin zituen) edo “vasconies vastavit” (baskoiak suntsitu egin zituen) esaldiak. Beraz, esaldiok bi gauza adierazten



3.24. irudia. Zestoa. Pagio baserria.

Ekonomiak eta demografiak ere beherakada izan zuten K.o. V. mendean. Lapurretak ugaltu egin ziren. Dena den, baskoien hirietan antolamendua erromatarren erakoa zen: etxegintza, legea, fiskalitatea, zeramika, erlijioa, txanponak, gobernatzeko era, esklabotza, bidelapurak, etab. Ama hizkuntza zen erromatarra ez zen gauza bakarretakoa³⁹.

dituzte: batetik, bisigodoek baskoien herriak menderatzeko asmoa zutela, eta, bestetik, baskoiek behin eta berriz eragozten zirela³.

Oiaso hirian garai hartan portuko kaietan ez zegoen mugimendurik, eta termetako bainu-lekua etxebizitza bihurtu zuten. Kobazulotan, ordea, badirudi jende gehiago bizi zela, agian abeltzaintza indartu egin zelako. Hala ere, Higer lurmuturrean garai hartako “sigillata paleokristautik” eratorritako pieza zeramikoak aurkitu ziren⁵.

3.8.3. Inbasioak barduliarren eta karistiarren lurretan

K.o. V. mendean laurehun herulok (sueboen taldekoak ziren) itsasoz zazpi ontzitan etxera zihoazela (Pomeranian edo oraingo Alemania eta Poloniako iparraldean bizi ziren) kantauriarren eta barduliarren herriei eraso egin zieten¹³.

Badirudi V. mendetik aurrera Menosca bertan behera geratu zela, zeren eta hurrengo lau mendeetako aztarnarik ez baita aurkitu. Dirudenez orduan

jendea inguruko mendietan bizi zen⁴¹. Zarauzko Arbiunen, ordea, badakigu burdina lantzeko lantegia zutela.

Karistiarren lurretan badakigu Leintz Gatzagako Dorletan ur gaziko iturburua ustiatzen zutela. Aretxabaletako Iruaxpe III haitzuloan V. mendeko pieza zeramikoak topatu ziren, “sigillata paleokristautik” eratorritakoak⁵.

Karistiarren lurraldeko Iruña-Veleia ere, K.o. V. mendearen erdialdera hustu zen⁴².

3.9. K.o. VI. MENDEA

3.9.1. Franko merovinjoak Akitanian

Klovis I.a franko merovinjoen erregeari Akitaniako kleroak deituta, 507. urtean Poitierstik mendebaldera dagoen Vouille-ko batailan (batzuen arabera) edo iparraldera dagoen Clan-go batailan (beste zenbaiten arabera) Alariko II.a errege bisigodoa hil egin zuten⁴³. Ondoren Tolosaz jabetu ziren frankoak, baina ez ziren Pirinio aldera etorri. Klovis I.a erregeak deituta 511. urtean Orleans-en egindako kontzilia ez ziren Novempopulaniako apezpikuak joan, lurralde horretan hark aginpiderik ez zuelako.

Gero, bisigodoak Hispania aldera erretiratu ziren, eta frankoek ere zeharkatu zituzten Pirinioak; 541. urtean, izan ere, Txildeberto I.a Iruñera eta Zaragozara heldu baitzen.

K.o. VI. mendearen azken herenean merovinjoen familia barruko liskarrak izan ziren agintea eskuratu nahian. Orduan, bere burua Klotario I.aren semetzat zuen Gondobald matxinatu egin zen, eta aukera hartaz baliatuta akitaniarrak ere bai. Baina Gontran anaitzakoaren tropek garaitu eta Gondobald hil egin zuten “Lugdunum Convenarum” (Saint-Bertrand-de-Comminges) hirian. Hiria erre eta eraitsi egin zuten¹.

K.o. VI. mendearen azken aldera Akitaniaren hegoaldean, antzinako Novempopulanian, euskaldunen (baskoi edo gaskoien)⁴³ migrazioa izan zen. Akitaniako antzinako biztanleak Ebro ibaiaren goi arroaren eta Ozeanoaren artean babestuta bizi ziren, baina Leovijildo errege bisigodoak 578. urte inguruan jazarrita Pirinioa zeharkatu eta iparraldera zabaldu ziren, Novempopulaniako lautadetara, hain zuzen. Errege frankoek ezin izan zioten gaskoien migrazioari eutsi. Txilperiko I.ak bidalitako tropek porrot egin zuten 581. urtean, eta Gontran-ek 587. urtean bidalitakoek ere ez zituzten gaskoiak egotzi. Mendearen amaiera aldera Garona ibaiaren harana okupatu zuten. Orduan desagertu egin ziren “Beneharnum”, Olorue, Akize eta Bazasko apezpikutegiak¹.

3.9.2. Baskoiak frankoen eta bisigodoen artean

581. urtean Leovijildo errege bisigodoak baskoien lurraldearen zati bat okupatu egin zuen. Aldi berean, haiei eusteko “Victoriacum” hiria sortu zuen. Zalantzak daude hiri horren kokalekuaz, zeren batzuentzat Gasteiz baldin bada ere, beste batzuentzat lehengo Iruña-Veleia baita³². Hala ere, baskoiek noiznahi arpi-latzen zituzten bisigodoen edo frankoen lurraldeak. Ondorioz, Rekaredo I.a bisigodoak bere espedizioak antolatu behar izan zituen 590-601. urte bitartean⁴⁴.



3.25. irudia. Iruñeko katedrala.

Giro hartan Rekaredok 589. urtean apezpikuei dei egin zien Toledon kontzilioa egin zezaten. Iruñeko apezpikua azaltzen den lehen kontzilioa izan zen hura. Aktetan honela baitio: “Liliolus, Pampilonensis ecclesiae episcopus, subscripsi” (hau da, “Liliolo, Iruñeko elizako apezpikua, sinatu dut”). Apezpiku izendatu berria zen Liliolo inola ere. Aktetan, hain zuzen, azken aurren sinatu zuen, eta horrek hau esan nahi du: Liliolo baino apezpiku bakarra zegoela kargua hartu berriagoa. Kontuan hartu behar da guztira 70 apezpiku zeudela.

Hiru urte geroago, 592. urtean, Zaragozan probintziako beste kontzilio bat antolatu zuten. Probintziako hamabost apezpikuetatik hamalau joan ziren, eta Iruñekoak honela sinatu zuen: “Liliolus, in Christi nomine episcopus, subscripsi”⁴⁰.

Zenbaitek Zestoako Lili jauregia hartu izan du Liliolo apezpikuaren sortetxetzat, herriko Joan Eren-txun historialariak zioenez⁴⁵. Dena den, guk Lili izena 1385. urteaz geroko agirietan baino ez dugu aurkitu. Bestalde, Zestoa beti izan da Iruñeko elizbarrutiaren zati, 1862. urtean Gasteizko elizbarrutia sortu zen arte⁴⁶.

3.9.3. Kristautasunaren hedapena Euskal Herrian

Baskoien lurraldean esan daiteke Iruñean VI. mendez gero bazela Eliza apezpiku eta guzti. Baita Kalagorin ere, IV. mendez gero. Zenbaiten iritziz, Bizkaia Iruñeko elizbarrutikoa izan zen IV. mendearen amaieratik VIII. mendearen hasiera arte. Beraz, pentsa liteke Bizkaiko kristautasunak inguruko apezpikuen eta kleroaren lanaren eraginez egin zuela aurrera.

Tarragonako probintziako kontzilio bisigodoetara (516, 524 eta 589. urteetan ospatutakoetara), ez zen Iruñeko apezpikurik joan. Ordezkaririk ere ez zen azaldu. Beraz, Iruñeko elizbarrutia 540-589 bitartean sortu al zen?⁴⁰.

Euskal Herrian kristautasuna hedatzeko erromatarren garaiko galtzadek garrantzi handia izan zuten. Bide bat Okzitaniako Tolosatik Oloruera zetorren (apezpikua gutxienez 506. urteaz gero zuen), eta handik Somportetik barrena Jacara eta Oskara zihoan. Beste bide garrantzitsu bat Bordeletik Astorgarainokoa zen. Bordeletik Orreaga eta hortik Iruñean zehar barduliar, karistiar eta autrigoiaren lurraldeak zeharkatzen

zituen. Itsasoko bidea ere kontuan hartzekoa da. Bestalde, Kalagorrik eta Okak (autrigoiena) ere bere elizbarrutia zuten, eta Arabako hegoaldean haitzuloetan bizi ziren eremitak zeuden. Zenbaiten iritziz Baionak ere 587. urteaz gero bere apezpikua izango zuen, baina datu hori ez dago egiaztaturik.

Dirudienez kristautasuna baskoien lurraldera K.o. III. edo IV. mendeetan iritsiko zen, eta VI. mendearen hasieran Euskal Herriko bazter guztietara zabaldua zegoen⁴⁷. Hala ere, paganismoak Erdi Arora arte iraun zuen Euskal Herrian.

3.9.4. Euskararen egoera

Greziarrentzat, garai batean, grekoa ez zen edozein hizkuntza barbaroa zen. Halaber, beren inperioan agindu zuten garaian ere, erromatarrentzat latina ez beste hizkuntza guztiak barbaroak ziren. K.o. VI. mendean ere erromantzea ez zen hizkuntza barbarotzat hartzen zuten⁴⁷. Beraz, euskara hizkuntza barbaroa zen latinez edo erromantzez mintzatzen zirenentzat.

Adierazi beharra dago K.o. VI. mendetik aurrera euskal tribuak izendatzeko erabilitako barduliar, karistiar eta austrigoi hitzak idaztietan ez direla azaltzen. Barduliarrek, karistiarrek, austrigoiek eta baskoiek antzeko hizkuntza izan zezaketan⁴⁸. Orduan, dirudienez, “baskoi” etnia-izena zabaldu egin zen hizkuntza edo kultura bera zuten herrietara. “Baskonia”i zenae rege roe tage hiagoe rabiliz enba skoie do euskaldunen lurraldea adierazteko.


Bestalde, oraingo Euskal Herriak hartzen duen eremuan baino askoz zabalagoan euskal substratua zegoen. Pirinio osoaren bi aldeetara, Akitanian, Burgosko iparraldean eta abarretan enbor bereko hizkuntzetako jendea bizi zen. Euskaldunak Erromako Inperioa erori eta laster Errioxa eta Burgos aldera hedatu ziren³.

Euskarak garai hartan, K.o. VI-VII. mendeetan, zuen hedadura Ramon Menendez Pidal hizkuntzala-

riaren arabera⁴⁹, hau zen: iparraldean Baionaren, Peioraderen (Peyrehorade) eta Orteseren (Orthez) eta Paberen iparraldetik ia Aturberaino (Tarbes), eta hor hegoaldera Lourdes eta Argeles-en pareraino, bi hauek kanpo utzita. Argelesen hegoaldetik Aran ibarreko Vielha herriaren iparralderaino eta Andorra osoa hartzeraino iristen zen euskara. Hortik hegoaldera egiten zuen euskararen mugak, Nogera Pallaresa ibaiaren ezkerreko ertza ere Lleidako Tremp herriraino barne hartuz. Hortik Oskako Tamarite de Literaren eta Benabarreraren artetik Barbastro kanpo utzita, Javierreren hegoaldetik Oska hiriburutik hegoaldera dagoen Alcubierre herriraino, eta hori barne hartuta iparraldera hiriburuaren ondoraino. Euskararen muga, Oska hiriburua inguratuta, Gallego ibaiko Gurra herriaren hegoaldera zihoan, eta hori barne hartuz Ejea de los Caballerosen hegoalderaino, eta hortik Zauzeren (Sos) hegoalderaino.

Hortik Nafarroako Pitillas eta Faltzesen iparraldetik Lizarrako hegoalderaino zihoan muga, eta hortik Arabako Guardiako iparraldera egiten zuen, eta gero hegoaldera Najerilla ibaiaren arabera, Torrecilla de Cameros-en pareraino. Gero Lumbreras kanpo utzita hegoaldera eta ondoren mendebaldera jotzen zuen mugak, Burgos hiriburu ondoko Juarros lurraldea barne hartuz. Hortik ipar-ekialdera egiten zuen mugak, Briviescaraino (hau kanpo utzita), eta Briviesca inguratuz lehenbizi mendebalderantz eta gero Miranda de Ebro alderantz egiten zuen, herri hau barne zela. Gero iparralderantz Burgosko Zaballa herria barne hartzen zuen euskararen mugak, eta hortik Villarcayo aldera zihoan, hau kanpo utzita, eta ondoren ipar-ekialdera Urdialzeraino (Castro Urdiales)⁴⁹.

Horiek dira, Ramon Menendez Pidalen ustez, euskarak K.o. VI-VII. mendeetan zituen mugak. Besterik da, ordea, nolako euskara mintzatzen zen, euskalkiak sortuta zeuden, etab. Julio Caro Barojak iradoki zenez, baskoi, barduliar, karistiar eta austrigoien garaian euskalkiak baziren; izan ere, oraingo euskalkien banaketak lehengo tribuen lurralde-banaketarekin antz handia du.



Euskararen mugak VI-VII. mendeetan.



Euskararen mugak IX-XII. mendeetan.



Euskararen mugak XVI. mendean.

3.26. irudia. Euskararen mugak K.o. VI. mendean, R. Menendez Pidalen arabera.

Beste teoria batek dioenez, ordea, K.o. V-VI. mendeetan “euskara zahar batua” egingo zen. Horren aldekoak dira, besteak beste, Koldo Mitxelena, Joakin Gorrotxategi, Joseba A. Lakarra, etab. Euskalkiak

elizbarrutien arabera sortuko ziren gero; izan ere, euskalkiak erromatarren garaian eratuta baldin bazuden, orain elkarrekiko askoz ere sakabanatuago egongo bailirateke².

3.10. K.o. VII. MENDEA

3.10.1. Ravennako ezezaguna

K.o. VII. mendearen erdi aldera Italiako Ravenna hirian geografo greziar ezezagun batek Geografia-lan bat idatzi zuen. Badirudi oinarritzat K.o. III. mendeko mapa bat hartu zuela, zeinak Agripa jeneralaren “Orbis Pictus” mapa famatuak erakusten baitzituen⁷. III. mendeko mapa horren beste kopia bat (IV. edo V. mendekoa) erabili bide zuen Ravennako ezezagunak⁴. Ia seguru esan daiteke Ravennako ezezagunak bere liburuak grekoz idatzi zituela, eta orain arte iritsi zaiguna originalaren latinezko itzulpenak direla⁵⁰.

bilen dauden erromatarren garaiko aztarnategi ezezagunak, haitzuloak alde batera utzita, Getariakoa, Zarauzko parrokiakoa eta Arbiungoa, Aiako Urozpe-roetakoa eta Zumaiako Oikian Meaga gainean dagoen Urtegazarkoa dira⁵³.

Dena den, horrelako edo antzeko esaldirik ez dugu beste inongo ikertzailearen testuetan aurkitu. Gainerako guztiek Ravennako ezezaguna Hispaniako iparraldeko kostaldeko hirien zerrenda ematen ari denean “Cistonia” izena hutsik ematen dute. Horixe dio J. M. Roldán Hervás-ek⁴⁹, Koldo Larrañaga Elortzak⁵⁴, Miguel Cor-



3.27. irudia. Zumaia. Oikiako Urteagazar baserria.

Geografo greziar honek bere lanean, Manuel Lekuona ikerlearen arabera, “Cistonia ad Devam fluvium versus” idatzi zuen, hau da, “Cistonia” Deba ibai aldera dagoela, ez Deban bertan. Esan beharrik ez dago “Cistonia” eta “Zestona” antz handiko izenak direla, hau da, Zestoa izan daitekeela⁵¹. Gauza bertsua dio Pio Baroja idazleak ere. Ravennako ezezagunak “Cistonia” eta “Cestonia” izenak erabiltzen omen ditu, eta esaldi hau dakar: “Cestone a Deva fluvio versus orium”⁵². Egia esan, Zestoa inguruan eta hur-

tés y Lópezek⁵⁵ eta Milagros Esteban Delgadok⁴, adibidez. Zerrendaren zati bat da hau: “... Glandimarium, Medioga, Bricantia, Ontonia, Cistonia, Castra Manuaria, Arragina, Saramon, Morodon...”

Hala ere, ezin da ukatu “Cistonia” izenak XIV. mendean azaltzen den “Çestona” izenaren antza duenik. Zenbaitek “Çestona” latinezko “Sextus” izenetik eratorria dela iradoki du (eta “Arrona” “Arrius” izenetik eratorria dela ere bai)⁵³.



3.28. irudia. Zestoa (Cistonia?).

3.10.2. Baskoniako dukerria

Frankoek erreinua anaien artean banatu egin zuten. K.o. 602. urtean Austrasiako errege Teodoberto II.ak eta Borgoniako errege Teodoriko II.ak, elkar hartuta, Akitania eta Baskonia bereganatzea erabaki zuten. Frankoen armadak baskoiak garaitu eta Genial izeneko dukea ezarri zieten. Hortxe dugu, beraz, “Baskoniako dukerri” sortu berria frankoen mende⁵⁶. “Baskonia” izena badirudi laster “Gaskonia” bihurtu zela⁴³.

Hala ere, Gundemaro errege bisigodoak (K.o. 610-612) baskoiei aurka egin behar izan zien, eta Sisebuto errege bisigodoak, berriz, 612. urtean Kantabriaz jabetu ziren frankoei. Sisebutok (612-621) gogor jokatu zuen baskoiekin.

Badirudi baskoiek Genial “dux” edo dukearen mende ez zutela denbora luzez iraun. Sisebuto errege

bisigodoa 621. urtean hil zenean, baskoiek “Tarracensis” probintzia inbaditu zuten. Suintila errege bisigodoak mendean hartu zituen baskoiak, eta hauek Olite hiria eraiki zuten. 632. urtean Akitaniako Kari-berto frankoak tropak antolatu zituen baskoiei eustearren⁵⁶. Orduan Pirinioetatik iparraldeko Baskonia Tolosako erreinura sartu zuen, hau da, Dagoberto anaiarentzat Karibertok sortu zuen erreinura.

Baskoiek laster beren arpilatzeak egin zituzten, ordea, eta Dagobertok Borgonian armada antolatu behar izan zuen. Dirudienez frankoak garaile atera ziren, baina Arinberto buruzagi frankoa eta haren tropak Zuberoan hil egin zituzten baskoiek. Hurrengo urtean, hala ere, baskoiak Aighino dukearekin Dagoberto erregearen aurrean aurkeztu eta mendekotasuna aitortu zioten.

Pirinioz hegoaldeko baskoiei 653. urtean Froiak laguntza eskatu zien Rezesvinto errege bisigodoari

aurka egiteko. Zaragozaraino iritsi ziren baskoiak, eta han arpilatzen ibili ziren. Wamba errege bisigodoak bere agintaldia hasi zuenean, 672-673. urtean, kantauriarren eta hegoaldeko baskoien aurka ari zen. Orduan Paulo Narbonako probintzian matxinatu egin zela jakin zuen. Zazpi egunez Baskoniako lurra eta etxeak erre, gazteluak eraitsi eta zergak ezarri zizkien. Gero, Kalagorri eta Oskan zehar Narbonara joan zen.

VII. mendearen amaieran Akitania edo Baskoniako (Loira ibaitik eta Pirinioetaraino) egoera aldatu

3.11. K.o. VIII. MENDEA MUSULMANAK IRITSI ARTE

VIII. mendearen hasieran, aurreko mendearen amaieran bezala, Lupo edo Otsoa dukea nagusi zen Akitanian. Agintaritza militarraz gain, hain handia zen dukerri osoko kleroan ere agintzen zuen. Berez estatu autonomoa zela esan daiteke. Pepin Herstalgoaren sasiko seme Karlos Martel 714. urtean frankoen duke izendatu zutenean, Akitania Eudon *Handia* dukeak gobernatzen zuen, “akitaniarren printze” deitzen ziotenak, hain zuzen⁴³. Orduan Akitania erreinua zen, eta Loira ibaitik Pirinioen arteko lurraldea hartzen zuen. Azkenean “Gaskonia” (Baskonia esan nahi zuena) Akitaniako Garonatik Aturri ibairainoko zatia adierazteko erabili zen. Horko biztanleak lehen baskoi

egin zen. Okzitaniako Tolosan ezarritako duke frankoek errege merovinjarrekiko independente gobernatzen zuten. Lupo izeneko dukea aipatzen dute ageriek, eta euskalduna izan zitekeen (“Otsoa”).

Garai hartan seguru asko Iruñean biztanle kristauak, jatorriz latindarrak, gutxi izango ziren, eta bertakoekin batera bizi zirela esan daiteke. Hiria nahikoa ongi harresiturik egongo zen⁴⁴.

izan ziren, baina oso erromatarturik zeuden. Gaskoniako erromantzea mintzatzen zuten, gero gaskoi hizkuntza bihurtu zena³.

Toledoko errege bisigodoentzat, kantauriarrak eta baskoiak buruhauste-iturri ziren, beti ere arpilatzekeo ibilaldiak egiten zituztelako. Toledon 694. urtean eta 702. urtean egindako kontzilioetara, adibidez, Iruñeko apezpikurik ez zen joan. Gainera, azken errege bisigodoa, Rodrigo edo Roderiko, Iruñean altxamenduei aurre egiten ari zen, 711. urtean Tarik-en agindupean musulmanak Gibraltarren lehorreratu zirenean⁴⁰.



3.29. irudia. Iruñeko Gazteluko plaza.

3.12. HIRUGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ HIGOUNET, Ch. Histoire de l'Aquitaine. Privat Editeur. Tolosa, 1971. (68-71, 76-78, 81, 84, 86, 87, 91, 92, 101-106, 129-132, 134, 139, 140. or.).

² NUÑEZ ASTRAIN, L. Antzinako Euskaraz. Gaiak. Donostia, 2004. (34, 48-51, 75, 76-79, 82-84, 86, 87, 91, 96, 97, 104-108, 131-193. or.).

³ ALBIZU, X. eta beste. Euskal Herriko Historia I. Gaiak. Donostia, 2004. (31, 32, 33, 40, 43-46, 48-54, 60-62, 66-69, 80, 81. or.).

⁴ ESTEBAN DELGADO, M. El País Vasco Atlántico en época romana. Mundaiz, 6. Donostia, 1990. (25, 27, 31, 32, 40, 41, 42, 64, 65, 86, 96, 102, 103, 106, 107, 131, 137, 224, 225, 232, 261, 377, 404. or.).

⁵ URTEAGA, M. Erromatar garaia. Bertan, 17. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (10, 12, 13, 15-24, 26-67. or.).

⁶ Parentesi artean ipini dugu XVI. mendea baino lehenagoko agirietatik jasotako toponimoak zein urtetakoak diren.

⁷ BARANDIARAN, I. Guipúzcoa en la Edad Antigua. Protohistoria y romanización. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. Donostia, 1973. (12, 14, 16, 17, 21-23, 44, 45, 84, 85, 89, 90. or.).

⁸ PEREZ, J. M. eta IZQUIERDO, M. T. *Dataciones radiocarbónicas del nivel II de la cueva de Amalda (Zestoia)*, in Aranzadiana 2001. Aranzadiko Berriak 2001. 122. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2001. (60. or.).

⁹ ALTUNA, J. *Amalda ZB: 563*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.

¹⁰ TXIMENO, X. Megalitoen zibilizazioa eta euskal hilarriak. Gaiak. Donostia, 2003. (77. or.).

¹¹ SCHULTEN, A. Los cántabros y astures y su guerra con Roma. Espasa Calpe argit. Austral, 1329. Madril, 1962. (153-190. or.).

¹² CARO BAROJA, J. Los Pueblos del Norte. Txertoa argit. Donostia, 1973. (39-43. or.).

¹³ ESTEBAN DELGADO, M. *La vía marítima en época antigua, agente de transformación en las tierras costeras entre Oiasso y el Divae*, in Itsas Memoria, 4. Donostia, 2003. (17, 19, 21, 23, 25, 27, 28, 29, 31, 33-38. or.).

¹⁴ ALTUNA, J. eta beste. *Ekain IV ZB: 556*, in Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. Munibe, 1995. 10. eranskina. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 1995.

¹⁵ SCUILLER, Ch. *Bayonne, résultat des sondages près de la cathédrale*, in Euskal Herriko Erromanizazioari buruzko I. Nazioarteko Solasaldia. Isturitz, 9. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1997. (745. or.).

¹⁶ XX. *El garum y las factorías de salazones en la costa de Gipuzkoa*, in Arekolan. www.arkeolan.com.

¹⁷ ESTEBAN DELGADO, M. eta beste. *Acerca de la costa cantábrica. El bajo Urumea en época antigua y el Morogi pliniano*, in Munibe 2005/2006, 57/2. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2006. (390-397, 399. or.).

¹⁸ GARATE, M. *Gure herriaren berri, urpetik*, in Berria, 2004-XII-24. (38. or.).

¹⁹ IBAÑEZ, A. Menosca eta Ipuscua artean. Arkeologia eta Lurralde Zarauzko (Gipuzkoa) Santa Maria La Real Elizaren Aztarnategian. Zarautz, 2003. (7, 43-45. or.).

²⁰ XX. *Santa Maria La Real-en zutarriak*, in Zarauzko Arte-Historia Museoa. II. buletina. 2005, uztaila. Zarautz. (6. or.).

²¹ IBAÑEZ, A. *III campaña de excavaciones arqueológicas. Santa María La Real (Zarautz)*, in Aranzadiana 2001. Aranzadiko Berriak 2001. 122. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2001. (96, 97. or.).

²² IBAÑEZ, A. eta SARASOLA, N. *I campaña de prospección arqueológica para la delimitación del yacimiento "Parroquia de Santa María La Real" (Zarautz, Gipuzkoa)*, in Aranzadiana 2005. Aranzadiko Berriak 2005. 126. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2005. (67-69. or.).

²³ IBAÑEZ, A. eta SARASOLA, N. *IV campaña de excavaciones arqueológicas en la iglesia de Santa María La Real" (Zarautz, Gipuzkoa)*, in Aranzadiana 2002. Aranzadiko Berriak 2002. 123. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2002. (61-63. or.).

²⁴ ALBERDI, X. eta beste. *Quince años de investigaciones histórico-arqueológicas en torno a Getaria*, in Munibe 2005/2006, 57/2. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donosti, 2006. (435-445. or.).

²⁵ ESTEBAN DELGADO, M. eta beste. *Urezberoetako Kanposantu Zaharra. I. Campaña de excavaciones*, in Aranzadiana 2001. Aranzadiko Berriak 2001. 122. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2001. (58, 59. or.).

²⁶ ESTEBAN DELGADO, M. eta beste. *II. Campaña de excavación arqueológica en Urezberoetako Kanposantu Zaharra (Elkano-Aia)*, in Aranzadiana 2002. Aranzadiko Berriak 2002. 123. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2002. (64, 65. or.).

²⁷ ESTEBAN DELGADO, M. eta beste. *III. Campaña de excavación arqueológica en Urezberoetako Kanposantu Zaharra (Elkano-Aia, Gipuzkoa)*, in Aranzadiana 2004. Aranzadiko Berriak 2004. 125. zk. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2004. (83. or.).

²⁸ BERRO, I. *Bizkaiko nekropolirik zaharrena*, in Berria, 2006-VI-16.

²⁹ BERRO, I. *Foruko portua*, in Berria, 2005-XI-10.

³⁰ ESTEBAN DELGADO, M. *Arbiungo Aztarnategia (Zarautz). II. indusketa kanpaina*, in Arkeoikuska 94. Gasteiz, 1994. (176-181. or.).

³¹ ESTEBAN DELGADO, M. *Arbiun (Zarautz). IV. Indusketa Kanpaina*, in Arkeoikuska 96. Gasteiz, 1996. (133-136. or.).

³² IRIARTE KORTAZAR, A. *La muralla tardorromana de Iruña/Veleia*, in Isturitz, 9. Euskal Herriko Erromanizazioari buruzko I. Nazioarteko Solasaldia. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1997. (701, 713. or.).

³³ BILBAO, I. *Iruña hiri izan zelako*, in Berria, 2006-VI-25.

³⁴ BEGIRISTAIN, E. *III. eta VI. mende artekoak dira Iruña-Veleian aurkitu diren euskarazko hitzak*, in Berria, 2006-VI-16.

³⁵ BARANDIARAN, A. *Veleiako idazkun gehienak III. mendekoak direla baieztatu dute arkeologoek*, in Berria, 2006-XI-25.

- ³⁶ BEGIRISTAIN, E. *Veleiako idazkunak "faltsuak" direla diote ikertzaileek*, in Berria, 2008-XI-20.
- ³⁷ MITXELENA, K. *Textos arcáicos vascos. Minotauro argit. Madril, 1964. (14-20, 38. or.)*.
- ³⁸ XX. Zestoa. Zumaia. Valladolid. Carta ejecutoria sobre los límites y jurisdicción entre Zumaia y Zestoa, y la pertenencia de San Miguel de Aizarnazabal a la tierra de Saiaz y la de Oikia (traslado). (Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Zarandona y Balboa. Pleitos fenecidos. 922/1. II. koadernoko 354. or.)
- ³⁹ HARRIAGUE, X. *Erromatar inperioa erortzean nahasmen garaia Baskonian*, in Berria, 2008-III-11. (54, 55. or.)
- ⁴⁰ GOÑI GAZTANBIDE, J. *Historia de los obispos de Pamplona, I. S. IV-XIII. Iruñea, 1979. (41, 44, 46-48, 53, 54. or.)*.
- ⁴¹ ZABALETA, G. *Menosca, barduliarren Atlantida*, in Berria, 20084-V-29. (6, 7. or.)
- ⁴² BARANDIARAN, A. *Veleia, denboraren atea*, in Berria, 2007-IV-3.
- ⁴³ DUPUY, M. *Les grandes heures de l'Aquitaine. Librairie Académique Perrin. Paris, 1973. (84-90. or.)*
- ⁴⁴ LACARRA, J. M. *Historia política del Reino de Navarra. I. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1972. (22-27. or.)*
- ⁴⁵ ERENTXUN, J. *Cestona. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970. (116. or.)*
- ⁴⁶ RUIZ DE LOIZAGA, S. *Documentación Medieval de la Diócesis de San Sebastián en el Archivo Vaticano (Siglos XIV-XV). Tuesta bilduma, 2. Erroma, 2000. (16. or.)*
- ⁴⁷ MAÑARICUA, A. *La cristianización del País Vasco*, in *Historia del Pueblo Vasco 1. Erein argit. Donostia, 1978. (65-72. or.)*
- ⁴⁸ SANCHEZ-ALBORNOZ, C. *Vascos y navarros en su primera historia. Ediciones del Centro. Madril, 1975. (75. or.)*
- ⁴⁹ MENENDEZ PIDAL, R. *El último reducto de los dialectos ibéricos. Madril, 1950.*
- ⁵⁰ ROLDAN HERVAS, J. M. *Itineraria Hispana. Madril, 1975. (113, 231. or.)*
- ⁵¹ LEKUONA, M. *Zestona. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1984. (Separata). (9, 10. or.)*
- ⁵² BAROJA, P. *El País Vasco. Ediciones Destino, S.L. Bartzelona, 1953. (163. or.)*
- ⁵³ ESTEBAN, M. *El poblamiento de época romana en Gipuzkoa*, in *Euskal Herriko Erromanizazioari buruzko 1. Nazioarteko Solasaldia. Isturitz, 8. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1977. (68, 73. or.)*
- ⁵⁴ LARRAÑAGA ELORTZA, K. *Euskal Herria Antzinatean: Materiale eta Agiriak. Kriseilu, UNED Bergara argit. Donostia, 1988. (269. or.)*
- ⁵⁵ CORTES Y LOPEZ, M. *Diccionario Geográfico-Histórico de la España Antigua, Tarraconense, Bética y Lusitana. I. alea. Madril, 1835. (380. or.)*
- ⁵⁶ ESTORNES LASA, B. *El Ducado de Vasconia*, in *Historia del Pueblo Vasco 1. Erein argit. Donostia, 1978. (25-33. or.)*

